

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

GASTEIZ | 2021



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Ikerketa-taldea: Maialen Iñarra, Olatz Altuna, Asier Basurto, Belen Uranga, Gillen Martinez de la Hidalga, Iker Etxarte, Manex Basabe

Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain

2022

www.soziolinguistika.eus/kaleneurketak

Lan hau Creative Commons Aitortu-Partekatutik 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

Babeslea: Gasteizko Udala

Aurkibidea

1	SARRERA	4
2	HELBURUAK	5
3	KOKAPEN SOZIOLINGUISTIKOA	6
4	METODOLOGIA	10
4.1	Ikerketa-teknika	10
4.2	Diseinua	12
4.2.1	Ibilbideak	12
4.2.2	Neurraldiak	13
4.3	Emaitzen adierazgarritasuna	14
4.4	Laginari buruz	15
4.4.1	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, sexuaren arabera	15
4.4.2	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, adinaren arabera	16
4.4.3	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, barrutien arabera	18
5	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA	21
5.1	Datu orokorra (2021)	21
5.2	Bilakaera (1993 – 2021)	22
5.3	Udalerriko inguru soziolinguistikoa	23
5.3.1	Aldagai soziolinguistikoak	25
5.3.2	Aldagai soziolinguistikoen bilakaera	29
5.4	Beste eremu geografikoetako erabilerak	30
5.4.1	Euskal Herria, gune soziolinguistikoa, herrialdea eta eskualdea	30
5.4.2	Gainerako hiriburuak	31
5.4.3	Behatutako udalerrien kale-erabilera hizkuntza-gaitasunaren arabera 31	
6	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, BARRUTIEN ARABERA	33
6.1	Datu orokorrak, barrutietan (2021)	33
6.2	Bilakaera, barrutietan (2016 – 2021)	35
7	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA	36
7.1	Hizkuntzen kale-erabilera, sexuaren arabera (2021)	36
7.2	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, sexuaren arabera (1997 – 2021)	37
7.3	Hizkuntzen kale-erabilera, adinaren arabera (2021)	38
7.4	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera (1993 – 2021)	39

8	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA ...	40
8.1	Hizkuntzen kale-erabilera, adin-talde berekoak elkartzean (2021)	40
8.2	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adin-talde berekoak elkartzean (2006 – 2021)	41
8.3	Hizkuntzen kale-erabilera, haurren presentziaren arabera (2021)	42
8.4	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, haurren presentziaren arabera (1997 – 2021)	43
8.5	Hizkuntzen kale-erabilera, haurra ala nagusia hitz egiten ari den (2021) .	44
9	ONDORIOAK	45
10	DATU NAGUSIEN LABURPENA	47
	BIBLIOGRAFIA	48
	ERANSKINAK	51
1.	Ibilbideak eta planoak	51
2.	Neurraldiak eta auzoak/barrutiak	78
3.	Sexuen araberako hizkuntzen kale erabilera, barrutien arabera	80
4.	Adinaren araberako hizkuntzen kale erabilera, barrutien arabera	80
5.	Haurren presentziaren araberako hizkuntzen kale erabilera, barrutien arabera	81

1 SARRERA

“Hizkuntzak, komunikazio bide izateaz gain, pentsamendua egituratzea ahalbidetzen du, eta errealitatea interpretatu eta barneratzeko ezinbesteko baliabidea ere bada. Horrez gain, pertsonen gizarteratzea errazten du, eta, ondorioz, nortasunaren garapenean ere leku garrantzitsua hartzen du.”

(Zarraga Azumendi 2010, 23)

Gizakiaren, gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkar eraginaz mintzo da aurreko aipua, hizkuntzaren garapen soziala gizarte auzia baita. Horregatik, pertsonen eta taldeen arteko harremanez aritzean, edota elkarbizitzaz erabakiak hartzean, hizkuntzek hartuko duten tokia zehaztea komeni da. Hala, hizkuntza-politika eta -plangintza egokiak abian jartzeko ezinbestekoa da errealitate soziolinguistikoa metodo zientifikoen bidez etengabe ikertzea, horrela soilik deskribatzen baita hizkuntzei dagokienez gizartearen gertatzen dena.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketek errealitate soziolinguistikoa gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen dute, eta behar-beharrezkoak dira hizkuntzen bizindarra ebaluatzeko, erabilera baita adierazle soziolinguistikoa esanguratsuenetako bat. Neurketaren bidez, erabilerari buruzko datu enpirikoak eskuratzen dira, ikerketa-galdera nagusi honi erantzunez: “zenbat euskara erabiltzen da kalean?”

Ikerketa honek udalerriko kaleetan zuzenean behatutako hizkuntzen erabileraren berri ematen du; hau da, datuok ez dira aitortuak (hiztunaren autopertzepzioan oinarritutakoak), baizik eta neurtuak. Horrez gain, ez da ahaztu behar entzuten den hizkuntzen erabilera ez dela, halaber, udalerriko biztanleena, udalerriko kaleetakoa baizik.

Hizkuntzen erabilera ez da aldagai egonkorra, ezta indibiduala ere; alta, une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute. Horregatik, ikerketa honetako erabilera-datuak interpretatzeko adierazle soziolinguistikoak, demografikoak eta soziologikoak ere aintzat hartu behar dira.

Azken hamarkadetan gizarte-bizitza era esanguratsuan aldatu da globalizazioa, digitalizazioa edota migrazioak bezalako fenomenoak tarteko. Are nabarmenagoa izan da aldaketa-giroa COVID19aren pandemiaren eraginpean 2020. urteaz gerotik. Hala, gizarte-aldaketa handien testuinguruan, inoiz baino garrantzitsuagoa da hizkuntzen erabileraren bilakaera arretaz aztertzea.

Txosten honetan, *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. GASTEIZ 2021* ikerketaren emaitzak aurkezten dira. Euskal Herrian egiten den neurketaren ezagutza metodologikoan eta soziolinguistikoa oinarritzen da berau, eta, eredu horri jarraiki burutu da, 2021eko udazkenean, Gasteizen egin den zazpigarren edizio hau.

2 HELBURUAK

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Gasteiz 2021 ikerketaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- **Gasteizko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz, datu enpirikoak eskuratzea.**
- **Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.**
- **Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea,** euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitzeke eta hizkuntza-plangintza diseinatzeke balio dezan.

Ikerketa-lan honek unean uneko baldintza sozialak eta soziolinguistikoak biltzen ditu. Alegia, erabilera aztertzeke, kaleko hiztunei erreparatzen zaie, beren adina nahiz generoa kontuan izanda. Halaber, osaera desberdinetako elkarrizketa-taldeen hizkuntza ere aztertzen da: esaterako, elkarrizketetan hurrek parte hartzen badute, nola aldatzen da hizkuntza-erabilera? Horiei guztiei buruzko gogoetak egiteke aukera ematen dute datuek.

Neurketa zazpi aldiz egin da Gasteizen: 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021 urteetan. Azken bi edizioetan, gainera, modu adierazgarrian eskuratu dira barrutikako kale-erabileraren emaitzak. Erabilera-datuak bost urteko maiztasunarekin jaso izanak argazki dinamikoa eskaintzen du. Horrela, erabileraren bilakaera katebegiz katebegi jaso da, eta ondo oinarritutako interpretazioak egin daitezke. Hau da, gizartearen eraldaketaren isla ere badira txosten honetan aurkezten diren datuak.

2021. urteko datu-bilketa Covid19-aren pandemiaren testuinguruan burutu da; pandemiak erabat inarrosi eta eraldatu ditu kale-bizitza eta orain arteko harreman-eta komunikazio-ohiturak. Horrela, edizio honetako datuak ez dira aurreko edizioetako egoera berberean jaso, baina, zalantzarik gabe, gaur egungo gizartearen isla izan, badira.

3 KOKAPEN SOZIOLINGUISTIKOA

Hizkuntza-erabilerak izaera poliedrikoa du, ertz asko ditu; ez da egonkorra, ezta indibiduala ere. Izan ere, une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute hiztunek egiten duten hizkuntzen hautua. Horregatik, ikerketaren emaitzak interpretatzeko, ukipenean dauden hizkuntzen erabilera-arau sozialak eta ingurunearen adierazle demografikoak, soziologikoak eta soziolinguistikoak hartu behar dira kontuan; azken hamarkadetan bititza soziala hain modu nabarmenean aldatu dutenak, hain zuzen.

Adierazle demografikoak

Joera orokorra da Euskal Herrian biztanleria hazi izana azken urteetan. Hazkunde hori ez da hazkunde begetatiboagatik gertatu, izan ere, euskal herritarren artean bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-kopurua heriotzeta baino baxuagoa. Aitzitik, azken urteetako migrazio-saldo positiboari zor zaio biztanleriaren hazkundera, hala izan ezean, biztanleriak behera egingo bai zukeen (Gaindegia 2021).

Jatorri atzeritarreko biztanleei dagokionez, azken 20 urteetan, EAEn 55.858 biztanle izatetik 241.724 biztanle izatera pasa dira (lau aldiz gehiago)¹. Gaur egun, jatorri atzeritarreko biztanleek Hego Euskal Herriko lurraldeetako biztanlerian duten pisua % 10 eta % 16 bitartekoa da. Nabarmentzekoa da, multzo horren barruan, jatorritik gaztelania hiztunak % 50 baino gehiago direla.

Bizi-itxaropena handitzearekin batera, biztanleriaren zahartze-tasa igo da, hau da, adineko pertsonen proportzioa handitu egin da. Aukera gehiago egon daiteke, beraz, udalerrietako kaleetan adineko biztanleekin topatzeko².

Adierazle soziologikoak eta espazio publikoari buruzkoak

Azken 30 urteetako aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoek eragin handia izan dute egungo bizimoduan, nola ingurune fisikoan (plazak, kaleak, ohiko tokiak eta lekuak) hala ohituretan. Hau da, giza harremanetarako inguruak eta moduak aldatu egin dira. Globalizazioak ekarritako logikan txertatu dira bizi-inguruneak, eta Euskal Herriko kaleak mendebaldeko beste edozein hiri-inguruk izan duen bilakaerarentz doaz; homogeneotasunerantz, estandarizaziorantz, eta, ondorioz, tokiko nortasunaren galerarentz (Telleria 2014).

Zonifikazioaren hirigintza-estrategiak eta auto zein errepideen ugaritzeak ekarri du, besteak beste, pertsonen egonaldiak urriagoak eta laburragoak izatea espazio publikoan; aurrez aurreko kontaktuak murriztu dira, soziabilitatea galdu eta, baita, segurtasun-sentsazioa kolokan jarri ere (Hiria Kolektiboa 2010). Adibide bat jartzearren, haurrek libreki erabiltzen zituzten kaleak eta plazak gaur egun arriskuz beterik sumatzen dira (Tonucci 2013); ondorioz, haurrei, eurentzat espresuki diseinatutako eremu itxi eta ultra babestuetara mugatzen zaie jolasa; askotan, gainera, ordainpeko aisialdi- taldeetara eta gidatutako kirol-jardunetara eta akademiara bideratzen dira eskolaz kanpoko orduak.

¹ Iturria: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia.

² Behatutako solaskideen ezaugarriak aztertu dira txosten honetako 4.4. puntuan.

Espazio publikoaren pribatizazioa izan da globalizazioak ekarri dituen aldaketa horien ondorio argienetako bat hirietako eta herrietako kaleetan, eta tabernetako terrazak dira horren erakusgarri argiena. Kalean esertzeko ordaindu beharra dago, eta horrek zenbait kaleetan egoteko eta harremanak garatzeko aukera gizartearen zati bati bakarrik eskaintzea dakar. Komertzio txikiaren desagertzearekin, kaleen behe solairuak hustu dira; ondorioz, herri txikiengan zerbitzu galera handia eta kale-bizitzaren murrizketa nabaria gertatu dira. Hiri handienetan, aldiz, nazioarteko izaera duten azalera handiko komertzioak etorri dira. Horiek horrela, kale horien bizimodua erabat aldatu da; profil ekonomiko eta adin zehatz bateko jende normatiboari zuzentzen baitzaizkio kontsumo gune horiek. Esanguratsua da, kasu batzuetan, lokal huts horiek gazteen bilgune bihurtu direla eta, ondorioz, gazteriaren kaleko egonaldiak murriztu egin direla. Gazte askok beren aisialdia eremu pribatuan³ igarotzea (Hernández García 2010) eragin du horrek guztiak⁴.

Egiteko modu global eta produktiboarekin erlazionatuta, turistifikazioak eragin handia izan du (De la Calle Vaquero 2019): bisitarien presentzia handiagoa erdiguneetan, turismo-kontsumoari zuzenean lotutako jardueren hazkundea, negozio-mota gero eta zabalagoa eta kanpoko bezeroengana bideratua (take away, marka globalak, frankiziak), etxebizitzak denbora motzeko merkantzia-produktu turistiko bihurtzea (Airbnb, esaterako), hiri-paisaia edo eszena bat sortzea elementu turistikoak nagusi direla espazio publikoetan ostalaritzak erabilitako terrazak adibidez)... Horrela, biziguneetan desoreka nabariak sortu dira, eta zenbait kaletan tokiko nortasuna galdu da. Nolabait, toki hauek "ez toki"⁵ bihurtu dira. Era berean, gentrifikazio-prozesuek ondorio nabarmenak ekarri dituzte hirigune askotan: diru-sarrera gutxiagoko bizilagunen desplazatzea eta merkantzia turistiko bihurtzen diren espazioekiko desjabetze sinbolikoa eta arrotzea, besteak beste.

Kaleak eta plazak elkar zaintzarako baino, kontsumo- eta produkzio-logiketarako prestatu dira. Merkantilizazio-prozesua gertatu da. Tokiko komertzioak desagertu dira, eta turistek edo aisialdiera zuzendutako jarduerak tokia hartu dute. Mundu globalizatu honek paradigma sozial berria ekarri du, beraz, eta are nabarmenagoa izan da aldaketa-giroa 2020tik aurrera COVID19aren pandemiaren eraginpean. Pandemiak, oro har, nabarmen eragin du kaleko giroan eta herritarren arteko zuzeneko harremanetan. Kutsatzeko beldurrak, udalerrien itxiera perimetralek, etxeratze-aginduek, elkarretaratzeko mugek, tabernen ordutegi murrizketek eta abarrek herritarren bizitza aztoratu dute.

Adierazle soziolinguistikoak

Globalizazioaren eraginez guztiz eraldatzen ari den mundu honetan, hizkuntzen arteko harremanak, hizkuntzekiko jarrerak eta politikak, eta hizkuntza-komunitateen biziraupenerako baldintzak ere, ez dira duela 30-40 urtekoak.

³ Lokaletan nahiz etxeetan edota logeletan (Feixa 2005), alegia.

⁴ Ez da ahaztekoa egungo gazteen agendak beteta egoteak ere eragina duela kaleko presentzia jaitsi izanarekin (Hernández García eta Santamaria Barinagarrementeria 2022).

⁵ "Ez tokiak" nortasunik gabeko espazioak dira (Augé 2004), anonimoak, giza gorputzen trantsiziokoak, non nekez sor baitaitezke kidesun-sentimenduak eta harremanak oinezkoak ere diren beste subjektuekin. Espazio desegokiak dira, pasatzekoak eta paseatzekoak, beti kezkarriak, nortasuna minimizatzen dutenak, norbanakoa "txikiagotzen" dutenak, non arrotz sentitzen den, garraio-trukagailu bat, azalera handi bat, edo merkataritza-eremu berri horietako batzuk bezalako egitura baten pean.

Lurralde arteko mugikortasuna handitu izanak kultur arteko harremanak ugaritu eta areagotu ditu. EAEn, esaterako, "euskara, gaztelania eta ingelesa albo batera utzita, 4.000 hiztun potentzialetik gora izan ditzaketen hamar hizkuntza-komunitate aurrekusi dira: galegoz (...), arabieraz edo amazigeraz (...), errumanieraz (...), katalanez (...), portugesez (...), mandarin txineraz edo kantoneraz (...), frantsesez (...), wolofera-z, fulaz edo serer-ez (...), Joruberaz, Igboeraz edo Hausaz (...) eta urduz edo punjaberaz (...)" hitz egin dezaketenak (Aierdi, Uranga, eta Iñarra 2021, 36).

Ingurune digitalaren hedapenak, hizkuntza-teknologiaren garapenak edota sare-sozialen fenomenoek aurrez aurrekoak ez diren harremanak indartu dituzte, eta bestelako harreman-motak (edo bideak) hauspotu dira. Errealitate berri horretan, erdaren erabilera da nagusi (Eusko Jaurlaritzaren et al. 2019, 58. or.).

Testuinguru global horren aurrean arduratuta agertu dira hainbat estatu-hizkuntza ere, globalizazioaren eta, batez ere, ingelesaren nagusitasunaren ondorioz, beraien hizkuntzen presentzia eta erabilera apaltzen ari baita, etengabe (Calvet 2017; Crystal 2003; Lo Bianco 2014).

Munduko hizkuntza gehienak arriskuan edo egoera zaurgarrian aurkitzen dira. Azken urteetan hizkuntza-aniztasunaren galera handia gertatu da, eta, aditu gehienek arabera, aldaketa esanguratsurik ezean, hurrengo hamarkadatan hizkuntza-galera asko areagotuko da (Bromham et al. 2022, 163. or.). Arriskuan dauden munduko hizkuntzen UNESCOren azken atlasak hizkuntza zaurgarrien zerrendan du euskara, kalteberakoen artean, alegia (Salminen 2020, 35). Aipagarria da, dena den, azken 50 urteetan euskararen biziberritze-prozesuak izan duen garapena, alor desberdinetan erabaki garrantzitsuak hartu baitira (corpusa, hezkuntza, hedabideak, administrazioa, ...) (Martinez de Luna 2015, 225).

Euskal Herria ez da soziolinguistikoki homogenea. Horren argigarri dira lurralde bakoitzeko euskara gaitasunaren datuak, esaterako. VI. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren et al., 2019), Gipuzkoak du euskaldun-pisurik handiena, 16 urtetik gorako biztanleen % 51 baita euskalduna. Jarraian dator Bizkaia, % 28ko euskaldun proportzioarekin. Euskaldunak % 21 dira Ipar Euskal Herrian, eta % 19 Araban. Azkenik, Nafarroa Garaiko 16 urtetik gorako biztanleen artean, % 13 da soilik euskalduna.

Euskararen erabilera baldintzatzen duten aldagai garrantzizkoak dira euskal hiztun-kopurua (edo dentsitatea) eta hiztunen hizkuntza-ohiturak. Hiztunak behar dira elkarrizketak euskaraz izan daitezen, baina azpimarratu behar da euskaldunen proportzioa (edo ezagutza-indizea) eta euskararen kaleko erabilera-indizea ez direla zuzenean alderagarriak. Sarritan egiten da erkaketa hori, baina ez da guztiz zuzena: euskararen ezagutza, jasotzen den moduan, aitortua eta indibiduala da, eta, aldiz, euskararen kale-erabilera behatua eta kolektiboa. Aldeak alde, halere, korrelazio handia dago bien artean, euskal hiztun-kopurua handien dagoen eremuetan jasotzen baita euskararen kale-erabilerarik altuena, eta alderantziz (Altuna 2002; 2018).

Gaur egungo euskal hiztunaren profila ez da orain dela 30-40 urtekoaren berdina. Orain askoz ugariagoak dira euskara nolabait jakin bai, baina erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) hobeto moldatzen direnak. Izan ere, gaur egun haur eta gazte euskaldunen gehiengoak bigarren hizkuntza du euskara—eskolatik jaso—, orain

artean ez bezala. Hiztun horietako askok, praktikan, erdaraz aritzeko erraztasun handiagoa dute (Eusko Jaurlaritza et al. 2019, 26. or.), eta, esan gabe doa, horrek zuzenean eragiten du hizkuntza-hautuan eta euskararen erabileraren indizean.

Bestalde, gogoan izan behar da euskaldun ia guztiek dutela gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiteko gaitasuna. Hau da, euskaldunen elkarrizketa guztiak (% 100) izan zitezkeen erdaraz. Euskaraz aritzeko gehieneko muga, ordea, % 100 horren oso azpitik dago, aski baita solaskide batek euskaraz ez jakitea erdaretara jotzeko. Aipatu bezala, gainera, badira erreparatu beharreko beste baldintza batzuk testuinguru sozial eleaniztunetan, ezagutzak ez baitu hizkuntzaren erabilera bermatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen (Vila i Moreno 2021, 26. or.) edo eskaintzen (Ramallo 2020, 220).

Azkenik, euskal hiztunek beste erabateko aldagaien eragina ere nozitu dezakete; esate baterako, harremanak eraikitzeke orduan ezarritako hizkuntza-ohiturak, batzuen edo besteen aurrean azaleratzen diren zenbait aurreiritzi edo ingurunean antzematen diren hizkuntza-arau sozialak. Horiek guztiek ere, hiztunek hizkuntzarekiko duten jarrerarekin batera, badute eragina hizkuntza-hautuan.

Laburbilduz, hizkuntza-erabilerak izaera poliedrikoa du, ertz asko ditu. Neurketa batetik bestera, kale-erabileraren joerak alda daitezke, baina fenomenoaren konplexutasunak zaildu egiten du aldaketa hori zer faktoreren (edo faktore-konbinazioen) eraginpean gertatu den azaltzea. Horregatik, ez da komeni irakurketak datu isolatuetara edo "igo/jaitsi" kontzeptuetara mugatzea, baizik eta ikuspegi diakronikoz egitea. Emaitzen gorabehera puntualei baino, joerei erreparatu behar zaie, eta, batez ere, joera horien jarraikortasunari. Horregatik da garrantzitsua neurketak lauzpabost urteko maiztasunarekin errepikatzea, horrela lortzen baita egoera estatikoetatik harago, bilakaeraren informazioa jasotzea eta irakurketa sendoagoak egitea.

4 METODOLOGIA

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketan, hizkuntzen ahozko erabilerari buruzko datu empirikoak jasotzen dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa. Beraz, espazio irekietan solasean ari ziren hiztunen jarduna behatuz jaso dira Gasteizko kale-erabilerari buruzko 2021. urteko datuak.

Behaketa bidez hizkuntzen erabilera neurtzeko metodoa Euskal Herrian sortu zen XX. mendeko 80ko hamarkadan⁶. Metodo horrekin, Euskal Kultur Batzordeak (EKB) Euskal Herriko neurketaren lehen eta bigarren edizioak burutu zituen 1989an eta 1993an. Gerotik, beste sei aldiz errepikatu du neurketa Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak)⁷. Ondorioz, ikerketa-lan honi esker, azken 30 urteetan hizkuntzek Euskal Herriko kaleetan izan duten (ahozko) presentzia aztertu da (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Sarreran esan bezala, Gasteizen eginiko neurketa hau Euskal Herriko ikerketan oinarritutakoa da. Hala, aipatutako metodoaren ezaugarri nagusiak gidan jasota badaude ere (Altuna eta Basurto 2013), ikerketa honetan izan duen aplikazio zehatza azalduko da, jarraian.

4.1 IKERKETA-TEKNIKA

Behaketa zuzenaren bidez eskuratu dira hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Teknika horrek, ezinbestean, diskrezioa eskatu du. Hau da, hiztunak behatuak izan direla ohartu gabe jaso da hizkuntza-praktikei buruzko informazioa. Ez dute, behintzat, elkarrizketa-hizkuntza behatzen ari garenik jakin.

Behaketa Zuzena izenarekin ezagutzen dugun teknikaren helburua da gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatuan begiratzea, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea. Bitartekorik gabe, hau da, zuzenean egiten den behaketa delako hartzen du teknika honek behaketa zuzena izena.

(Juaristi, 2003)

Datuak biltzeko irizpideak

Elkarrizketa izan da behaketa-unitatea: kalean dagoen pertsona baten edo gehiagoren arteko solasaldia⁸. Neurtzaileei zuzendutako edo neurtzaileen arteko elkarrizketak ez dira jaso. Halaber, neurraldi berean, solaskide-talde bera hizkuntza

⁶ Erabilera neurtzeko metodoa Siadeco Ikerketa Taldeak sortu zuen, Iñaki Larrañagaren gidaritzapean (2021ean hil zen soziolinguista aitzindaria). Garai hartan, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak jaso ziren estreinakoz EAEn, 1981eko zentsuaren bidez; 1983. urtean, Kale Erabileraren Neurketa metodologia sortu zuten, eta Gipuzkoako udalerrri guztietan egin zituzten neurketak (Larrañaga 1986).

⁷ 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021 urteetan egin dira neurketa horiek. Azken urteetako edizioak zentsu-eta errolda-urtearekin bat datoz.

⁸ Elkarrizketa indibidualak ere jaso egin dira (mugikorrarekin hitz egiten entzun diren hiztunak, txakurrarekin hizketan doazenak, atarietako interfonotik...).


berberek behin baino gehiagotan entzun den kasuetan, behin bakarrik jaso da praktika hori⁹.

Hain zuzen, kalean entzundako elkarrizketa horiek zein hizkuntzatan gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean)¹⁰. Gainera, elkarrizketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarriak bildu dira, betiere behaketa zuzen bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak, inori ezertxo ere galdetu gabe: sexu-generoa (emakumezkoa edo gizonezkoa den¹¹, alegia) eta adina (haurrak, gazteak, heldu gazteak, heldu nagusiak eta adinekoak¹²). Azkenik, behatutako elkarrizketetan, hiztun aktiboa haurra den edo ez ere jaso da.

Datuak biltzeko prozedura

Datuak *Neurgailuaren* bidez jaso dira, mugikorreko APP bidez, alegia¹³. Modu horretan, datuak modu diskretuagoan jasotzea ahalbidetu da, eta, unean une, behatu den elkarrizketa kopuruari jarraipen estua egin zaio.

Argazki hauetan ikus liteke neurtzaileek *neurgailuan* elkarrizketa bakoitzaren ezaugarriak sartzeko baliatzen dituzten pantailetakoko batzuk:



⁹ Neurraldi horretan, solaskide-taldean aldaketak egon badira (bat joan edo bestea etorri, esaterako), praktika berri gisa jaso da. Edo, neurraldi horretan, solaskide-talde horrek hizkuntza aldatu badu, praktika berri gisa jaso da hori ere. Solaskide-talde berbera hizkuntza berebera hizketan topatu bada, baina beste neurraldi batean, jaso egin da.

¹⁰ 2016. urtera arteko edizioetan, hizkuntzak hiru multzotan bereizten ziren: euskara, gaztelania/frantsesa eta beste hizkuntzak.

¹¹ Solaskidea emakumezkoa edo gizonezkoa bezala sailkatzeko irakurketa soziala dugu oinarri, ez dakigu egiazki solaskidea kategoria horiekin identifikatzen den ala ez. Bestalde, "ez-bitarra" kategoria ez da jaso. Kontuan hartu behar da behaketa-teknikaren ezaugarri behinena hiztunari galderarik ez egitea dela.

¹² Hona hemen hiztunak kategoria bakoitzean sailkatzeko jarraitu diren irizpideak: haurrak (2-14 urte), gazteak (15-24 urte), heldu gazteak (25-39 urte), heldu nagusiak (40-64 urte) eta adinekoak (65 urtetik goira). 2021. urtera arteko edizioetan, lau adin-taldeetan sailkatzen ziren behatutako solaskideak. 2021eko edizioan, ordea, helduak bi multzotan sailkatu dira, errealitate soziolinguistikoaren informazio xeheagoa eskuratzeko.

¹³ 2021. urteko ediziora arte, koadernoetan biltzen zituzten erabilera-datuak neurtzaileek.

Neurtzaileek bikoteka bildu dituzte hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Hala eta guztiz ere, bi neurtzaileek Neurgailuarekin izan zitzaizketen intzidentziei aurre egiteko, datuak paperean jasotzeko aukera izan dute une oro.

Azkenik, bestelako irizpide batzuk ere eman zaizkie neurtzaileei:

- Dudazko kasuak ez jaso.
- Haur jaioberrien presentzia berari zuzenean ari ez bazaizkie ez jaso.
- Neurketa egin aurretik, ibilbidea erreparatu.

4.2 DISEINUA

Ikerketak udalerriko kaleetako hizkuntza-erabilera deskribatu nahi duenez, ikerketaren diseinuak kalean hitz egiten duen edozein pertsona potentzialki behatzeko bokazioa du. Horregatik, kaleetako baldintza desberdinak kontuan hartu behar dira erabakitzeke zenbat behaketa egin, noiz egin eta non egin.

Lehenik eta behin, behaketa zein kaletan egingo den diseinatu da. Kale jendetsuenak eta ezaugarri soziologiko desberdineko jendea neurtzeko aukera ematen dutenekin osatu dira udalerriko bakoitzeko behaketa-ibilbideak, udaleko euskara teknikariarekin adostuta.

Udalerriko eta ibilbide horietan, neurtzaileek bi orduko neurraldiak egin dituzte. Bi orduko iraupen hori ikerketaren Euskal Herriko ediziotik finkatuta dago, eta behatzaileek behatzen aurrean diskrezioari eusteko gehieneko iraupen bezala ulertzen da ikerketa honetan.

Egutegiari eta ordutegiari dagokienez ere, bilatu da, alde batetik, pertsona asko behatu ahal izateko egun eta ordu egokiak izatea; eta bestetik, bizimodu desberdina daramaten pertsonak behatu ahal izateko aukera ematen duen ordutegi-diseinua egitea. Horrez gain, ikerketaren aurreko edizioetatik datorren diseinuarekiko jarraikortasuna bermatu da.

Horrela, *hizkuntzen erabileraren kale-neurketa* burutzeko, udalerriko bakoitzak bere ibilbide- eta neurraldi-kopurua du, udaleko teknikariarekin adostua. Hiriburuen kasuan, ahalegin berezia egin da auzoetako edota barrutietako hizkuntzen kale-erabilerari buruzko datu adierazgarriak eskuratzeko. Horretarako, auzoetako edo barrutietako ibilbide- nahiz neurraldi-kopuruak indartu dira, eta horietako bakoitzean emaitza estatistiko sendoak eskuratzeko aurreikusitako Gasteizko neurketa-orduen guztizko kopurua.

4.2.1 Ibilbideak

Gasteizko kasuan, 27 ibilbide zehaztu dira¹⁴, 5 barrutitan antolatuta:

¹⁴ Ibilbide bakoitzeko kaleen zerrenda lehenengo eranskinean ikus daiteke. 2016ko neurketan ere ibilbide berberak behatu ziren.

1. Taula. IBILBIDEEN ZERRENDA, BARRUTIEN ARABERA. GASTEIZ, 2021

1.Barrutia	Alde zaharra 1	3.Barrutia	Arana
	Alde zaharra 2		Aranbide
	El Pilar		Aranbizkarra
	Errota		Zaramaga 1
	Zentroaldea		Zaramaga 2
2.Barrutia	Ariznabarra	4. Barrutia	Salburua
	Gazalbide		Adurtza, Aretxabaleta, San Kristobal eta Unibertsitatea
	Irubide		Judimendi
	San Martin	5. Barrutia	Desamparados
	Txagorritxu 1		Abetxuko
	Txagorritxu 2		Arriaga
	Zabalgana		Lakua 8/A1
	Mendizorrotza		Lakua 8/A2
			Sansomendi

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

4.2.2 Neurraldiak

Datu-bilketa 2021eko irailaren 18tik urriaren 27ra bitartean burutu da, udazkeneko ordu-aldaketa baino lehenago, alegia. Horrela, argi-orduei ahalik eta etekin gehien atera zaie, eta neurraldi guztiak antzeko baldintzetan egin dira.

Pandemiaren hasieratik, kalean ibiltzeko eta harremanak izateko osasun- eta lege-baldintza irekienak indarrean zeuden epealdia zen hori. Euskal Herrian, irailaren 18tik urriaren 27ra, oro har, kutsatze-datuak baxuak ziren, ez zegoen kalean musukoaren derrigortasunik, ostalaritzan ez zegoen jendea multzokatzeko mugarik ezta ordutegi murriztapenik, ez zegoen herriz-herri mugitzeko debekurik....

Ibilbide bakoitzean, hiru neurralditan behatu dira kaleko hizkuntza-praktikak: asteazken arratsaldean (18:00-20:00 bitartean), larunbat goizean (11:00-13:00 bitartean) eta larunbat arratsaldean (18:00-20:00 bitartean). Ibilbide bakoitza, beraz, 6 orduz behatzea aurreikusi zen. Aipatzekoa da, ordea, sei ibilbide hauetan 12 orduz bildu direla datuak: Arana, Aranbide, Ariznabarra, San Martin, Mendizorrotza, Zentroaldea. Izan ere, sei ordurekin behatutako solaskide-kopurua dezente aldentzen zen 2016an ibilbide berebanean behatutakoarekin, eta, Gasteizko erabilera-datu orokorra estatistikoki sendoa izan zedin, beharrezkoa zen pertsona gehiagoren hizkuntza-praktikak behatzea. Horregatik, sei ibilbide horietako datu-bilketa beste astebetetz luzatu zen, Gasteizko datu-bilketa 36 orduz indartzeko erabakia hartu zen, alegia.

2. Taula. NEURKETA-ORDUAK, IBILBIDEEN ARABERA. GASTEIZ, 2021

1.Barrutia (36 ordu)	Alde zaharra 1 (6 ordu)	3.Barrutia (48 ordu)	Arana (12 ordu)
	Alde zaharra 2 (6 ordu)		Aranbide (12 ordu)
	El Pilar (6 ordu)		Aranbizkarra (6 ordu)
	Errota (6 ordu)		Zaramaga 1 (6 ordu)
	Zentroaldea (12 ordu)		Zaramaga 2 (6 ordu)
2.Barrutia (66 ordu)	Ariznabarra (12 ordu)	4. Barrutia (18 ordu)	Salburua (6 ordu)
	Gazalbide (6 ordu)		Adurtza, Aretxabaleta, San Kristobal eta Unibertsitatea (6 ordu)
	Irubide (6 ordu)		Judimendi (6 ordu)
	San Martin (12 ordu)	5. Barrutia (30 ordu)	Desamparados (6 ordu)
	Txagorritxu 1 (6 ordu)		Abetxuko (6 ordu)
	Txagorritxu 2 (6 ordu)		Arriaga (6 ordu)
	Zabalgana (6 ordu)		Lakua 8/A1 (6 ordu)
	Mendizorrotza (12 ordu)		Lakua 8/A2 (6 ordu)
NEURKETAN IGAROTAKO ORDUAK: 198 orduko neurketa			Sansomendi (6 ordu)

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

4.3 EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA

Honako hauek dira ikerketaren datu estatistiko zehatzak:

- **Unibertsoa: Gasteizko** kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.
Mugikortasun handiko eremua da kalea, eta ez dago unibertso hori osatzen duten kideen (are gutxiago, elkarrizketen) zerrenda ezagutzerik. "Hala bada, ezinbestekoa da laginak erabiltzea; hau da, unibertso osoari buruzko ondorioak ateratzeko, nahitaezkoa da unibertsoaren zati bat ikertzea" (Juaristi, 2003, 65.or.).
- **Lagina:** Behatu diren **9.637 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **25.228 solaskidek** osatu dute lagina.
- **Akats-tartea**¹⁵: $\pm\% 0,25$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, % 95,0ko konfiantza-mailan eta $p=\% 4,1$ ¹⁶ izanik.

Beraz, datu estatistiko sendoak jasotzen dira txostenean.

¹⁵ Erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria. Akats-tartea kalkulatzeko, hiru datu erabili dira: neurketan behatutako elkarrizketa-kopurua, hiriburuko biztanle-kopurua eta euskararen kale-erabileraren proportzioa. Ikus "Laginaren kalkulurako tresna": <https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>
Lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematikoaz gehiago jakin nahi izanez gero, jo (Yurramendi eta Altuna 2009) edota (Yurramendi et al. 2013) txostenetara.

¹⁶ Behatutako elkarrizketen artean euskarazko elkarrizketetan parte hartu duten solaskideek osatu duten ehunekoa.

4.4 LAGINARI BURUZ

Ikerketa honetan, Gasteizko kaleetan behatutako 25.228 solaskideak zein hizkuntzatan hitz egiten ari ziren jaso da, aurreko atalean zehaztu bezala. Metodologiaren ezaugarriak kontuan izanda, ezin da jakin behatu diren pertsona horiek Gasteizko biztanleak diren ala ez.

Nolanahi ere, udalerriko errealitatera hurbiltzeko asmoz, bertako biztanleriaren ezaugarriekin alderatuko dira behatutako solaskideen ezaugarriak, atal honetan. Horrela, behatutako lagina udalerriko biztanleriarekiko zer-nolako hurbilketa den begiratuko da; hau da, laginaren ezaugarriak gasteiztarren ezaugarriekin bat egiten duten aztertuko da, horrek lagunduko baitu emaitzak interpretatzen. Alderaketa hori sexuaren, adinaren eta barrutien arabera egingo da.

Halaber, datozen azpi-ataletan, Gasteizko kale-neurketen azken aurreko edizioko laginarekin ere alderatuko da 2021ekoa. Izan ere, bilakaera-datuen interpretaziorako, lagungarri da ezagutzea Gasteizko kaleetan urterik urte behatu diren solaskideen profila aldatu ote den.

Bide batez, garrantzizkoa da kontuan izatea datu-bilketa egin den ordu-kopurua. Gasteizko kale-neurketaren aurreko edizioan 162 orduko datu-bilketa burutu zen; 2021ean, ordea, 198 ordukoa izan da, datu-bilketa indartzeko ahalegina egin zelako (ikus azalpenak 4.2.2. atalean). Hala izanik ere, 2021eko azken edizio honetan txikiagoa izan da Gasteizen jasotako lagina, Gasteizko kaleetako behatutako pertsona kopurua, alegia (2016ko 30.261 solaskidetatik 2021eko 25.288 solaskidera).

4.4.1 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, sexuaren arabera

Gasteizko biztanleen artean, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira (% 51,4 eta % 48,6 hurrenez hurren), Gasteizko Udalak emaniko 2021eko biztanle-datuen arabera. Gasteizko kaleetan ere, emakumezkoen presentzia altuagoa da gizonezkoena baino. Gainera, 2016ko eta 2021eko neurketetan pisu antzekoa hartu dute emakumezkoek nahiz gizonezkoek.

1. Grafikoa. LAGINA ETA BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA. GASTEIZ 2016-2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Aipagarria da, ordea, emakumezkoek pisu handixeagoa hartu dutela ikerketaren laginean (2016an nahiz 2021ean) biztanleen artean hartzen dutena baino (% 54,5 eta % 54,9 hurrenez hurren). Hau da, Gasteizko kaleetan emakumezko gehiagoren presentzia behatzen da horiek biztanleen artean duten pisua baino. Joera bera ikusten da Euskal Herri osoko datuetan ere (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

3. Taula. LAGINA ETA BIZTANLERIA, SEXUAREN ARABERA. GASTEIZ, 2016-2021 (%)


Sexua	Lagina 2016		Lagina 2021		Biztanleria 2021	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumezkoak	16.486	54,5	13.844	54,9	130.309	51,4
Gizonezkoak	13.775	45,5	11.384	45,1	123.388	48,6
GUZTIRA	30.261	100,0	25.228	100,0	253.697	100,0

Iturria. Soziolinguistika Klusterra eta Gasteizko Udala

4.4.2 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, adinaren arabera

Gasteizko biztanleen erdiak (% 54,4) 25-64 urte ditu, heldua da, alegia. Laurdena eskas, berriz, adinekoen multzoan sar daiteke (% 22,0). Jarraian datoz haurrak (36.061 biztanle, % 14,2) eta, azkenik, multzo txikiena osatzen dute gazteek (23.745 biztanle, % 9,4). Datuok, beraz, biztanleriaren zahartze-fenomenoa azpimarratzen dute, 24 urte baino gehiago baitu Gasteizko biztanleen hiru laurdenak.

2. Grafikoa. LAGINA ETA BIZTANLERIAREN ARABERA. GASTEIZ, 2016-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra eta Gasteizko Udala

Gasteizen eginiko 2021eko ikerketa honetako laginean ere biztanleen artean hartzen duten hurrenkera berbera hartu dute adin-taldeek: helduak behatu dira gehien (% 49,1), jarraian adinekoak (% 17,8) eta haurrak (% 17,7) eta gazteak aldiz, gutxien behatu dira (% 15,4) Gasteizko kaleetan. Ñabardura gisa, adinekoen kaleetako presentzia azpimarra daiteke Gasteizen; izan ere, Euskal Herriko kaleetan behatutako hiztunen erdia heldua izan bada ere, gainerako adin-taldeak horrela sailkatu dira: haurrak, adinekoak eta gazteak (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022). Ohikoa da, beraz, haurrek pisu proportzional handiagoa hartzea kaleetan, biztanleen artean baino. Horixe ikus daiteke Gasteizen ere. Aitzitik, esan bezala, kalean behatutako haurrak nahiz adinekoak 4.500 inguru izan dira.

Nolanahi ere, agerian gelditu da adin-tarte bakoitzaren kaleko bizitza-ohiturak desberdinak direla. Datuen arabera, ohikoa da, Euskal Herriko kaleetan, gaur egun, belaunaldi gazteenek adinekoek baino presentzia altuagoa izatea. Ez zen hori gertatzen lehenengo kale-neurketetan: 1993an Euskal Herri osoan neurtutako solaskideen % 43 haurrak eta gazteak ziren eta % 12 adinekoak. Azken edizio honetan % 32 izan dira haurrak eta gazteak eta % 17 adinekoak (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022). Garrantzitsua izan daiteke bilakaera hori kontuan izatea, Gasteizko kaleetako hizkuntzen presentziak izan duen bilakaera ulertu ahal izateko.

4. Taula. LAGINA ETA BIZTANLERIA, ADINAREN ARABERA. GASTEIZ, 2016-2021 (%)

Adin-taldea	Lagina 2016		Lagina 2021		Biztanleria 2021	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
2-14 urte	5.975	19,7	4.457	17,7	36.061	14,2
15-24 urte	3.353	11,1	3.890	15,4	23.745	9,4
25-64 urte	15.669	51,8	12.381	49,1	138.047	54,4
>64 urte	5.264	17,4	4.500	17,8	55.844	22,0
GUZTIRA	30.261	100,0	25.228	100,0	253.697	100,0

Iturria. Soziolinguistika Klusterra eta Gasteizko Udala

2016an eta 2021ean egindako ikerketako laginen datuei erreparatuz gero, azpimarratu behar da gazteen kaleko presentzia zertxobait handiagoa izan dela proportzionalki 2021eko neurketan (4 puntu gehiago 2016ko % 11,1etik 2021eko % 15,4ra), eta txikiagoa haurren eta helduen kasuan (2 puntuko aldeak 2016tik 2021era).


Gazteen kasuan, joera berbera ikusten da Euskal Herri osoko datuetan ere: "berezi nabarmentzekoa da gazteen proportzioak izan duen gorakada" (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022). Pandemiaren testuinguruan uler daiteke gazteen presentziaren igoera hori. 2021eko irailean eta urrian COVIDaren aurkako neurriak lasaitu egin ziren (kutsatze-datu baxuak, musukoaren derrigortasunik ez, ostalaritzan murriztapenik ez...). Bazirudien egoera normalizatzeko bidean zela, eta gazteek kalea zuten beren sozializatorako espaziotzat, besteak beste, gazte-lokal itxien debekuak indarrean baitzeuden.

4.4.3 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, barrutien arabera¹⁷

Gasteizko Udalaren 2021eko datuen arabera, 2. Barrutian bizi da biztanle gehien (70.000 lagun inguru), eta, jarraian, 3. eta 5. Barrutiak kokatzen dira, 55.000 eta 52.000 biztanle ingururekin. Hiru barruti horietan bizi da Gasteizko biztanleen ia hiru laurden. Biztanle gutxien dituzte 1. eta 4. Barrutiek, 38.500 eta 33.000 biztanle inguru, hurrenez hurren.

¹⁷ Azterketa hau egiteko, ez dira kontuan hartu 6. Barrutian bizi diren gasteiztarrak. Ikerketaren diseinuan adierazi moduan (4.2. atalean), ez da hizkuntzen erabileraren daturik behatu 6. barrutiko kaleetan.

3. Grafikoa. LAGINAREN BILAKAERA, BARRUTIKA. GASTEIZ, 2016-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra eta Gasteizko Udala

Laginaren banaketari dagokionez, gorabehera handiak agertzen dira biztanle datuetatik. Oso ohikoa da desorekak egotea barrutien artean, kalean ibiltzen den jende-kopurua aldatu egiten baita barruti batetik bestera.

Barrutiak 2021eko laginean hartu duten pisuaren arabera ordenatuz gero, altuenetik baxuenera, biztanleen artean hartzen duten hurrenkera aldatu egiten da. Nagusiki, hau da aldaketa aipagarria: 1. Barrutia biztanleen artean laugarren postuan kokatzen den arren, laginean bigarrenaren kokatzen da. Hau da, 1. Barrutiko kaleetan nabarmen pertsona gehiago behatu da hizketan, bertako biztanle-proportzioarekin alderatuz. Aitzitik, 5. Barrutiko kaleetan ez da horrenbeste pertsona behatu hizketan, eta, beraz, biztanleen artean baino proportzio txikiagoa hartu du laginean barruti horrek.

5. Taula. LAGINA ETA BIZTANLERIA, BARRUTIEN ARABERA. GASTEIZ, 2016-2021

Auzoa	Lagina 2016		Lagina 2021		Biztanleria 2021	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1. Barrutia	6.667	22,0	6.159	24,4	38.588	15,5
2. Barrutia	10.028	33,1	6.327	25,1	70.063	28,2
3. Barrutia	5.306	17,5	5.422	21,5	54.298	21,8
4. Barrutia	4.337	14,3	3.572	14,2	33.238	13,4
5. Barrutia	3.923	13,0	3.748	14,9	52.324	21,1
GUZTIRA	30.261	100,0	25.228	100,0	248.511 ¹⁸	100,0
Iturria. Soziolinguistika Klusterra eta Gasteizko Udala						

2016ko edizioan ere, biztanleekiko desoreka horiek behatu ziren, eta oro har, gorabehera gutxi egon dira. Hala ere, azpimarratzekoa da 2016ko luginaren datuekin alderatuz gero, 2. Barrutiaren presentzia 8 puntutan murriztu izana 2016tik 2021era. Hau da, datu-bilketa indartu arren¹⁹, 2016an baino nabarmen pertsona gutxiago behatu da 2. Barrutian 2021ean, eta, ondorioz, pisu proportzional handiagoa hartu du 3. Barrutiko kaleetan behatutako solaskide-kopuruak 2021ean 2016an baino. Gogora dezagun, 2016ko erabilera-datuen arabera, 2. Barrutiko kaleetan entzuten dela euskara gutxien Gasteizen. Kontuan hartzekoa dirudi, beraz, ñabardura horrek Gasteizko hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ulertu ahal izateko.

¹⁸ Guztizko kopuru honetan ez dira kontuan hartu 6. Barrutian bizi diren 5.129 gasteiztarrak, ezta barrutiren batean sailkatu gabe dauden 58 bizilagunak ere.

¹⁹ 2016an baino 18 ordu gehiagoz behatu dira 2. Barrutiko kaleak 2021ean. Ikus azalpenak 4.2.2. atalean.


5 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA

5.1 DATU OROKORRA (2021)

Ikerketa-garaian, Gasteizko kaleetan topatutako 100 lagunetatik 4 euskarazko elkarrizketatan ari ziren (% 4,1). Gehiengoa gaztelaniazko elkarrizketetan behatu da (% 90,8). Gainerakoak frantsesezko (% 0,1) eta beste hizkuntza batzuetako elkarrizketatan ari ziren (% 5,0)²⁰.

Aipagarria da euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera altuagoa izatea Gasteizko kaleetan euskararena baino.

1. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA. DATU OROKORRA. GASTEIZ, 2021 (%)



Hizkuntza	Lagina	Erabilera %
Euskaraz	1.043	4,1
Gaztelaniaz	22.899	90,8
Frantsesez	35	0,1
Beste hizkuntzetan	1.251	5,0
GUZTIRA	25.228	100,0

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


²⁰ Gogora ekarri behar da, aurrez esan bezala (4.3 atala), Gasteizko behaketan \pm 0,25ekoa izan dela euskararen kale-erabileraren akats-tartea, eta, beraz, emaitzetan gorabeherako tarte hori kontuan hartu behar dela.

5.2 BILAKAERA (1993 – 2021)

Azken bost urtean, gora egin du euskararen kale-erabilerak Gasteizen (2016ko % 3,7tik 2021eko % 4,1era). Gasteizen egindako kale-erabileraren neurketek 2006an antzeman zuten erabilera altuena, % 4arekin, baina egindako hurrengo ikerketan erabilera % 3,1era jaitsi zen. 2021eko ikerketan, 2006eko zifretara itzuli da euskararen kale-erabilera, eta 1993tik gorazko joera du, oro har.

Egoera antzekoa sumatu da beste hizkuntzen kale-erabilerarekin, azken hamabost urteotan joera gorakorra hartu baitu. 2021eko neurketan, serieko zifrarik altuena eskuratu du, % 5koa izatera igaro baita.

2. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. GASTEIZ 1991-2021 (%)



Hizkuntza	1993	1997	2001	2006	2011	2016	2021
Euskaraz	2,5	2,9	2,8	4,0	3,1	3,7	4,1
Gaztelaniaz ala frantsesez	97,5	97,1	97,2	93,5	92,2	92,5	90,9
Beste hizkuntzetan	-	-	-	2,6	4,7	3,7	5,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	99,9	100,0
<i>Lagina</i>	23.739	21.773	17.066	22.474	28.142	30.261	25.228

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Azken hamar urteetan Gasteizen gertaturiko goranzko joera hori Arabako joerarekin bat dator. Araban, % 4,0koa zen euskararen kale-erabilera 2011n, eta % 4,8koa 2021ean (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

5.3 UDALERRIKO INGURU SOZIOLINGUISTIKOA

Udalerriko kaleetan egiten den hizkuntzen erabilera aztertzeke eta errealitate hori hobeto ulertzeke udalerriko zenbait aldagai soziolinguistikoko aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Atal honetan, kaleko erabilerarekin batera populazioarekin zuzenean loturiko hiru aldagai aztertuko dira: biztanleriaren lehen hizkuntza, etxeko erabilera eta euskaraz aritzeko gaitasuna. Hala aztertu dute Sorolla, Altuna eta Larrea egileek 2019an eginiko *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak* izeneko ikerketan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 11), eta, era berean, biztanleriaren aldagai soziolinguistikoko horietan lantzen dira Euskal Jaurlaritzak argitaratzen dituen *Mapa Soziolinguistikoetan* ere (Eusko Jaurlaritzak - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020).

Beraz, honako lau aldagai hauek hartu dira aztergai: 1) EUSTATEk ematen duen udalerriko euskara-gaitasuna, hots, zenbat biztanle diren euskaldun, ia euskaldun edo erdaldun²¹; 2) biztanleen artean lehen hizkuntza²² euskara, erdara, euskara eta gaztelania edo beste bat dutenen ehunekoa; 3) etxeko hizkuntzen erabilera²³, euskara, erdara, biak edo beste bat erabiltzen diren alegia; eta 4) ikerketa honetan jasotako hizkuntzen kaleko erabileraren datua.

Atal honen helburua da lau aldagai soziolinguistikoko horiek baliatuz udalerriko inguru soziolinguistikoaren argazkia eskaintzea. Aldagai horiek, ordea, ez dira konparagarriak bere horretan, errealitate desberdinen berri ematen dutelako.

Alde batetik, hizkuntza hitz egiten jakitea norberaren ezaugarri kognitiboa da, errealitate psikologiko batutzailea, hizkuntza berriak eskura baitaitezke, lehendik ikasitako beste hizkuntza batzuen ezagutza kaltetu gabe. Erabilera, aldiz, ezaugarri kolektiboa, familiakoa edota soziala da. Esan daiteke, beraz, testuinguru sozial

²¹ Kategoría horiek euskararen jakite-mailari buruz egiten diren lau galderei erantzundakoaren arabera lortu dira: “ulertzen duzu?”, “hitz egiten duzu?”, “irakurtzen duzu?”, eta “idazten duzu?”. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak:

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

²² Ikerketa honetan, EUSTATEk ematen duen ama-hizkuntzaren datua erabiltzen da lehen hizkuntza modura, hots, erakunde horren arabera, 3 urte bete arte ikasten den lehenengo hizkuntza. Lau aukera daude: lehen hizkuntza moduan umetan euskara bakarrik ikasi duten pertsonak, gaztelania bakarrik ikasi dutenak, euskara eta gaztelania ia aldi berean ikasi dutenak eta, azkenik, lehen hizkuntzatzat euskara eta gaztelania ez den besteren bat izan dutenak.

²³ Etxean erabiltzen den hizkuntza etxean gehienetan hitz egiten den hizkuntza da. Atal honetan, lehen hizkuntzarako erantzun berberak onartzen dira: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat (EUSTAT).

eleaniztun batean, ezagutzak ez duela hizkuntzaren erabilera baldintzatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen edo eskaintzen (Ramallo 2020).

Kontuan hartzekoa da, bestalde, desberdintasun metodologiko nabarmenak daudela kale-erabileraren, etxeko erabileraren, lehen hizkuntzaren eta euskara-gaitasunaren informazioa biltzeko moduan. Laburbilduz, aztertzen ari garen aldagai horien arteko alderaketak oso tentuz hartu beharrekoak dira, honako arrazoi hauek tarteko:

- **Kale-erabilera behaketa bidez jasotzen da**, beraz, hizketan ari dena horretaz konturatu ere ez da egiten; **gainerakoak**, aldiz, **inkesta bidez jasotzen** dira, eta norberak ematen du bere etxean hitz egiten duen hizkuntzaren inguruko informazioa, edo baita bere lehen hizkuntzarena edota euskara-gaitasunarena.
- **Kale-erabileran ez da ezinbestean udalerrian bizi direnen erabilera** islatzen bere horretan, kalean behaturiko elkarrizketen erabilera jasotzen baita, izan bertan erroldatutako biztanleen ala ez.
- Erabilerei dagokienez, **kale-erabilera gertuko artekoa** izan ohi da, eta, sarritan, adinkide berekoen artean gertatzen da. Aldiz, **etxeko erabilera familia eremukoa da**, normaletan belaunaldi ezberdinen artekoa (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 16).


Nolanahi ere, azaldutako ñabardura horiek kontuan izanda ere, aurrez egin diren ikerketen arabera, esan daiteke honako korrelazio hauek izan, badirela:

- **Zenbat eta udalerrri euskaldunagoa izan orduan eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.** Baina, banaketa hori ez da lineala eta ez uniforme, eta udalerrien artean hizkuntza portaerari buruzko desberdintasunak ageri dira (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 12).
- **Lehen hizkuntza modura euskara jaso dutenen proportzioa handia den udalerrietan, gehienetan, are eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.** Lehen hizkuntzaren proportzioak behera egin ahala, hala egiten du euskararen erabilerak (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 15).
- **Zenbat eta handiagoa izan etxeko erabilera, orduan eta handiagoa da kaleko erabilera.** Nabarmentzekoa da bestalde, kaleko erabilera etxekoa baino altuagoa dela udalerrri gehienetan. Gainera, alde hori ez da murritzten etxean euskaraz asko hitz egiten den udalerrietan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 16).
- **Ezagutza, kale-erabilera, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera:** aldagai soziolinguistikoen euskarari dagokion datuetan, balio altuenetik txikienera hurrenkera hori da ia udalerrri guztietan ohikoena (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19).

Beraz, azter ditzagun Gasteizko udalerrian bildu diren aldagai soziolinguistikoen datuen arteko harremana.

5.3.1 Aldagai soziolinguistikoak

3. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZA-GAITASUNA, LEHEN HIZKUNTZA, ETXKO ERABILERA, KALE-ERABILERA ETA MATEMATIKOKI ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. GASTEIZ, 2016-2021 (%)



	Hizkuntza-gaitasuna (2016)	Lehen Hizkuntza (2016)	Etxeko erabilera (2016)	Kale erabilera (2021)
Euskara / Euskaldunak	27,3	3,7	2,4	4,1
Ia euskaldunak	19,7	-	-	-
Euskara eta gaztelania	-	3,9	5,9	-
Erdara / Erdaldunak	53,1	92,5	91,7	95,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>GUZTIRA, Abs.</i>	235.839	235.839	235.839	25.228

Iturria. EUSTAT eta Soziolinguistika Klusterra.

Euskara-gaitasunari dagokionean, ikus daiteke Gasteizko biztanleen laurdena baino gehiago dela euskalduna, zehazki, % 27,3; eta beste % 19,7k euskara ulertzen du. Beraz, biztanleen ia erdia da euskaraz hitz egiteko -edo gutxienik ulertzeko- gai.

Gaitasun hori kontuan izanda, VI. Mapa Soziolinguistikoak **2. gune soziolinguistikoan** kokatzen du Gasteiz (% 20-50 udal-gaitasuna) (Eusko

Jaurilaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020, 39)²⁴. Mapa horrek ondoren zehazten den informazioa eskaintzen du 2. gune hori ezaugarritzeko:

“Bigarren gune soziolinguistikoko udalerrietan EAEko biztanleriaren ia hiru laurden bizi dira (%72,2), 1.487.770 biztanle. Horietatik 471.736 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien erdia baino gehiago (%55,7). Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 80 udalerrik osatzen dute bigarren gunea. Hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak gune soziolinguistiko honetan daude.”

(Eusko Jaurilaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020, 41).

Udalerriko **euskara-gaitasunaren** eta **lehen hizkuntzaren artean** aldea izatea ohikoa da, desberdintasun horretan islatzen baita, besteak beste, euskarak izan duen irabazia azken 30-40 urte inguruan, hezkuntza-sistemaren eta helduen ikasketaprozesuen bitartez. Gasteizen ere, biztanleriaren % 27,3k euskara gaitasuna du, eta horietatik % 7,6ak lehen hizkuntza modura jaso du euskara (euskara edo euskara eta gaztelania batera); azpimarragarria da, beraz, bertako biztanleriaren parte oso esanguratsuak (% 19,7, 46.460 biztanle inguru) euskara bigarren hizkuntza modura ikasi duela eta, beraz, euskararen ezagutzaren aldeko irabaziak direla. Era berean, **gaitasunaren** eta **etxeko erabileraren** artean ere aldea izatea oso ohikoa da, izan ere, arestian esan bezala, etxeetan belaunaldi desberdinetako kideak elkartzen dira. Sarri asko, kide horiek euskara-gaitasun desberdina dute, edota horietako batzuk gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitz egiten dute, eta, beraz, etxe askotan ez dira betetzen euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak: harreman-sarea eta erraztasuna (Aizpurua Espin 2018, 44).

Lehen hizkuntzaren eta **etxeko erabileraren** datuek gertutasun handiagoa izan ohi dute; Gasteizen, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenek biztanleriaren % 7,6 osatzen dute eta etxean euskara edo biak erabiltzen dituztenak % 8,3 dira. Hau da, esan daiteke, etxeko kideen artean, zenbat eta gehiago izan euskara lehen hizkuntza modura dutenak orduan eta erabilerari handiagoa izango dela etxeko giroan. Harreman hurbileko hori, Gasteizen bezala, ia udalerriri guztietan gertatzen da (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19).

²⁴ Herriko ezagutza-datuak ez ezik, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren emaitza enpirikoetan oinarrituz, “Gaztelania erabat nagusi den (G++)” udalerrien multzoan kokatzen da (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 24). Multzo soziolinguistiko hori 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko eta 2017-2018 urte bitartean egindako udal neurketen emaitzak aintzat hartuz osatu zen, “Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerriri mailako analisia. Laburpena eta ondorioak” izeneko txostenean (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).

Multzo horretako udalerrien batezbestekoen parean daude Gasteizko hizkuntza-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren datuak (3.taula - Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19). Kale-erabileraren datua zertxobait beherago kokatzen dela esan daiteke.

Matematikoki espero daitekeen euskararen erabileraz, erabilera isotropikoaz

Arestian zehazturiko lau aldagai soziolinguistikoez gain, bada kaleko erabilera ulertzeko interesgarri izan daitekeen bosgarren bat ere, hain zuzen, J.L. Alvarez Enparantza Txillardegiren eredu matematikoan (2001) oinarritutako erabilera isotropikoa. Datu horrek, elebitasun sozialeko eremutan, bi hizkuntzen ezagutza unibertsala ez denean, biztanleek duten hizkuntzak erabiltzeko aukera azaltzeko balio du. Hau da, eredu horren bitartez, egoera hipotetiko eta gune jakin batean, matematikoki espero daitekeen euskararen erabilera kalkula daiteke, eremu horretako elebidun dentsitatea kontuan izanda, euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutela planteatuta (euskararekiko leialtasun erabatekoa dutelakoan) eta hizketaldian parte hartzen duten balizko taldeen pisua aurreikusita.

Eredu hori aintzat hartuta, eta egoera hipotetiko hori udalerraren kasura egokituta, Donostiako udalerriko *erabilera isotropikoaren* kalkulua berriro da ikerketa honetan²⁵, euskal hiztunen hizkuntza-hautua, neurri batean behintzat, ulertzen lagun dezakeelakoan.

Kalkuluak eginda, hortaz, % 5,8koa da baldintza hipotetiko horietan Gasteizeko euskararen erabilera isotropikoa (edo espero daitekeen erabilera), kontuan izanik udalerriko biztanleen euskaldunen ehunekoa % 27,3koa dela. Beraz, behatutako erabilera erreala (% 4,1) matematikoki espero daitekeen erabilera baino baxuagoa da.

Jakina da, ordea, kaleko harreman sozialak ez direla zorizkoak izaten. Hortaz, gerta daiteke harreman horietan aurrez ezarritako hizkuntza-erabileraren ohituretan hizkuntza bat edo bestea gailentzea. Halaber, kontuan izan behar da euskaldunek euskaldunekin elkartzerakoan beti euskaraz egitea (% 100eko leialtasuna) ia ezinezkoa dela, sarri, solaskideen inguruko informazioa ez-nahikoa delako, (Iriberry eta Uriarte 2012, 201)²⁶, euskaraz egiteko erosotasunik ez dutelako edo euskaraz aritzeko sarerik edo konfiantzazko giro nahikorik ez dutelako (Amorrortu, Goirigolzarri, eta Ortega 2021, 24).

Horregatik, laburbiltzeko, esan daiteke udalerriko euskararen ezagutza-datua kalean egiten den erabileraren iragarle ona izan daitekeen arren (udalerrian zenbat eta euskaradun gehiago izan orduan eta euskararen erabilera handiagoa espero daiteke), beste aldagai batzuk ere aintzat hartu behar direla, ezinbestez, hizkuntzen erabileraren konplexutasuna ulertzeko. Gainera, baldintza soziolinguistikoetara mugatu gabe, faktore sozioekonomikoak eta soziodemografikoak ere adierazgarriak izan daitezke (nahiz eta azterketa honetan ezin ditugun nahi bezala kontuan izan).

²⁵ Eragiketa matematiko zehatza honako formula honen bitartez osatzen da: $PB = mB (w_2ex^2 + w_3ex^3 + w_4ex^4)$, non: PB = euskararen erabilera-maila; W2 = bikoteen pisua, W3 = hirukoteen pisua, w4 = laukoteen pisua; mB = euskararekiko leialtasuna, ex = elebidunen proportzioa. Gaian sakontzeko, ikus (Alvarez Enparantza, Txillardegi 2001) eta (Isasi eta Iriarte 1998).

²⁶ Besteak beste, gogora daiteke Euskaraldiaren ariketa sozialaren gakoetako bat dela txaparen erabilera. Hau da, txaparen bidez, solaskideak euskara ulertzen duela jakin daiteke, eta hori ezagutzea faktore erraztailea da hiztunarentzat, euskara erabil dezan.

Mugimendu migratzaileen eragina

Hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetan lurraldeko aldagai demografikoek duten garrantzia txosten honetan nabarmendu da, esate baterako, euskaraz hitz egiten duten biztanleriaren sexuaren, adinaren²⁷ edo migrazioen²⁸ garrantziaz jabetzeko. Azken aldagai horrek (migrazio-fenomenoak) udalerriko kaleetan duen eragina kontuan izatekoa da dagoeneko gaur egungo datuak aztertzeko; zalantzarik gabe, are eta hurbilagotik begiratu beharko dira aurrerantzean, aurreikus daitekeen migrazio-fenomenoaren goranzko joera baieztatzen bada.

Esate baterako, gogoratu behar dira iragan hurbileko honako bi fenomeno nagusiak: euskararen lurraldean XX. mendean Estatu Espainiarretik Euskal Herrira heldutako migrazioaren eragina (Ruiz Olabuenaga eta Blanco 1994) eta, berriki, XXI. mendearen hasierarekin batera, jatorri atzerritarreko immigrazioa. Azken fenomeno horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan % 11,7koa da biztanleria horren dentsitatea (Aierdi, Uranga, eta Iñarra 2021, 14)²⁹, eta aurreikusi daiteke 100etik gora hizkuntzek dutela presentzia gure artean, biztanle horien jatorrizko estatuan hitz egiten diren hizkuntzak identifikatuta³⁰.

Aipatu behar da kaleetan hizkuntza horien presentzia apala dela, oro har, gaur, gaurkoz: Euskal Herrian, beste hizkuntzen erabilera % 2,8koa izan da (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022), duela bost urte behatu zenaren pare (% 2,7 2016an). Gasteizen, 2021eko datuen arabera, jatorri atzerritarreko biztanleria % 14,3 da³¹, eta euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera % 5,0koa izan da (2016ko datua: % 3,7). Nabarmentzekoa da euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen presentzia Euskal Herri osoan baino altuagoa izatea hiriburuetan. Jatorri atzerritarreko biztanleak eta turistak dira beste hizkuntza horien hiztun potentzial nagusiak. Hala, kontuan hartu behar da hiriguneek jatorri atzerritarreko biztanleriaren bizileku gisa eta turismo-gune gisa ezaugarri bereziak dituztela (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Udalerriko aldagai soziolinguistikoen azterketa honi amaiera emateko aipamen labur bat egin nahi diogu udalerriko kaleetan islatzen den biztanleen mugikortasunari.

²⁷ Ikus, adinari dagokionean, besteak beste, UNESCOk haurrenganako hizkuntzaren transmisioari ematen dion garrantzia hizkuntza zaugarri modura sailkatzeko irizpideetan (Moseley 2010).

²⁸ Bizindar etnolinguistikoaren teoriaren baitan ere migrazioen datuen garrantzia esplizituki identifikatzen da (Giles et al. 1977).

²⁹ Ikerketa horretan, jatorri atzerritarreko biztanleria honako hiru talde hauek osatzen dute: Estatu espainiarrean jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak, atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak eta atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak.

³⁰ Soziolinguistika Klusterraren hizkuntzen mapak hipotesi horien arabera egin dira: hizkuntza ofizialak zein diren, hizkuntza hedatuak eta hizkuntza minorizatuak. Ikus <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/gipuzkoako-hizkuntza-aniztasunaren-mapa/>. Soziolinguistika Klusterrak orain arte egindako ikerketek Euskal Autonomia Erkidegoko datuak aztertuz egin dira, oraingoz. Nafarroako eta Iparraldeko daturik ez du aztertu orain arte. Udalerrri bakoitzak bere berezitasunak baditu ere, identifikatu diren joera nagusien berri izateko, Aierdi, Uranga eta Iñarra 2021 lanean jaso dira jatorri atzerritarreko biztanleriaren azterketaren ondorioz hipotesi mailan aurreikusitako hizkuntza-aniztasunaren inguruko zehaztasunak.

³¹ Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia: Jatorriko herrialde nagusien arabera. https://ikuspegi.eus/eus/estadisticas/estadisticas_tablas.php


Udalerrien arteko mugimenduak esanguratsuak izan daitezke jardueraren arabera, eta horrek udalerrian errolatuak ez diren hiztunen presentzia eragiten du bertako kaleetan. Hiriburuen kasuan, esaterako, zerbitzu-eskaintza zabala dago, besteak beste, eta erakarpen handia du inguruko -nahiz kanpoko- herritarrentzat. Udalerrien arteko bizileku-migrazioak aztertuta, Arabako eragin-eremu nagusia da Gasteiz (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 30). Horri erantsi behar zaio, jakina, hiriko kaleetan turismoak eragin dezakeen alterazioa.

5.3.2 Aldagai soziolinguistikoen bilakaera

Aztertutako aldagai soziolinguistikoen bilakaeran azpimarra daitezkeen datuak honako hauek dira:

- **Euskara-gaitasuna** etengabeko hazkundean da 1981. urtetik: % 3,4 ziren euskaldunak orduan eta % 27,3 2016an; zazpi bider igo da, beraz, euskaldunen proportzioa. Zeregin horretan, hezkuntza-sistemaren papera azpimarratu behar da.
- **Lehen hizkuntzari** dagokionez, goranzko joera izan du 1991-2016 epealdian, % 2,4tik % 3,7ra igaroz lehen hizkuntzatzat euskara dutenen pisua.
- **Etxeko hizkuntzak** ere, goranzko joera izan du 1991tik 2016ra: % 1,0tik % 2,4ra.
- **Kaleko euskararen erabilera** gorabeheratsuagoa izan da: 1993tik 2006ra goranzko joera zuen euskararen kale-erabilerak. 2006tik 2011ra behera egin zuen, eta azken hamar urteotan gora egin du, 2006ko mailara itzuliz.

4. Grafikoa eta Taula. EUSKARA-GAITASUNAREN, LEHEN HIZKUNTZAREN, ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. GASTEIZ, 1981-2021. (%)



%	1981	1986	1991	1993	1996	1997	2001	2006	2011	2016	2021
Hiztun euskaldunak	3,4	5,9	7,5	-	13,6	-	14,9	24,6	22,5	27,3	-
Lehen Hizkuntza - Euskara	-	-	2,4	-	2,6	-	3,0	3,4	3,5	3,7	-
Etxeko Hizkuntza - Euskara	-	-	1,0	-	1,2	-	1,6	1,9	2,6	2,4	-
Kale-erabilera - Euskara	-	-	-	2,5	-	2,9	2,8	4,0	3,1	3,7	4,1

Iturria. EUSTAT eta Soziolinguistika Klusterra.


5.4 BESTE EREMU GEOGRAFIKOETAKO ERABILERAK

5.4.1 Euskal Herria, gune soziolinguistikoa, herrialdea eta eskualdea

Ondorengo grafikoan eta taulan, Euskal Herrian, Gasteizi dagokion gune soziolinguistikoa (2. gunea), Euskal Autonomia Erkidegoan, Araban, Arabako Lautadan eta Gasteizen jasotako datuak bildu dira.

Gasteizeko euskararen kale-erabilera (% 4,1) Arabako Lautadaren erabilera-mailaren berdina da (% 4,1). Arabako, EAEko, dagokion gune soziolinguistikoko eta Euskal Herriko euskararen kale-erabilera baino baxuagoa da Gasteizkoa (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

5. Grafikoa eta Taula. ERABILERA, LAGINA ETA AKATS-TARTEA. HAINBAT EREMU GEOGRAFIKO, 2021 (%)




Eremua	Biztanleria	Lagina	Erabilera %	Akats-tartea %
Euskal Herria	3.136.258	603.497	12,6	0,3
2. Gune soziolinguistikoa	1.603.444	28.980	6,0	0,2
EAE	2.178.619	489.073	15,7	0,3
Araba	327.803	43.269	4,8	0,3
Arabako Lautada	245.994	25.228	4,1	0,3
Gasteiz	245.994	25.228	4,1	0,3

Iturria. EUSTAT eta Soziolinguistika Klusterra.

5.4.2 Gainerako hiriburuak

Donostiako kaleetan hitz egiten da euskara gehien: euskararen kale-erabilera % 15,3koa da bertan, eta gainerako hiriburuetan % 2,5-4 artean dago. Aipagarria da, hiriburu hurrenkeran, **Gasteiz bigarren postuan** kokatu izana. Gogora dezagun Araba dela erabilera baxuena duen lurraldea. Gasteizen eta Bilboren kasuan, euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen kaleko erabilera azpimarratu behar da, % 4-5ekoa baita. Baionan, berriz, % 3,4koa da gaztelaniaren kale-erabilera (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

4. Grafikoa. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIRIBURUETAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Azken hamar urteotan, gora egin du euskararen kale-erabilerak Gasteizen. Gainerako hiriburuetan, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu. 1989tik hona, Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan igo da euskararen kale-erabilera (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

5.4.3 Behatutako udalerrien kale-erabilera hizkuntza-gaitasunaren arabera

Hurrengo grafikoan, 2021eko edizioan Soziolinguistika Klusterrak udalerritan berariaz egindako *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa* guztien euskararen erabilera-datua irudikatu da. Bertan, euskararen kale-erabilera eta udalerriko euskara-gaitasuna bi ardatzetan jarri dira harremanetan.

5. Grafikoa. HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETA EGINDAKO UDALERRIETAN EUSKARA-GAITASUNA ETA KALEKO ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. HIRIBURUAK, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.


Ikus daitekeen bezala, joera garbia dago bi aldagai horien artean, esan nahi baita zenbat eta euskara-gaitasun handiagoa izan, orduan eta euskararen kale-erabilera altuagoa nabari dela. Baina, era berean, ikus daiteke harreman hori ez dela erabat lineala, izan ere euskara-gaitasun berbera duten udalerrietan euskararen kale-erabileraren datuak oso desberdinak izan daitezke.

Euskara-gaitasuna kontuan izanda, behatu diren udalerrien artean, Gasteizko euskararen kaleko erabileraren datua (% 4,1) batez bestekoaren parean kokatu da.

6 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, BARRUTIEN ARABERA


6.1 DATU OROKORRAK, BARRUTIETAN (2021)

1. Mapa. EUSKARAREN KALE ERABILERA BARRUTIETAN. GASTEIZ, 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

6. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, BARRUTIEN ARABERA.
GASTEIZ, 2021 (%)




%	1. Barrutia	2. Barrutia	3. Barrutia	4. Barrutia	5. Barrutia
Euskaraz	5,3	2,9	4,3	5,3	2,8
Gaztelaniaz	88,1	94,3	86,8	90,9	94,8
Frantsesez	0,3	0,1	0,1	0,2	0,0
Beste hizkuntzetan	6,3	2,6	8,8	3,6	2,4
GUZTIRA	100,0	99,9	100,0	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	6.159	6.327	5.422	3.572	3.748

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

6.2 BILAKAERA, BARRUTIETAN (2016 – 2021)

6. Grafikoa. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. GASTEIZKO BARRUTIAK, 2016-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra


6. Taula. EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, BARRUTIETAN. GASTEIZ, 2016-2021 (%)

Ibilbidea	2016	2021	Akats-tartea 2021 (%)
1. Barrutia	5,9	5,3	0,92
<i>Lagina</i>	6.667	6.159	-
2. Barrutia	2,1	2,9	0,68
<i>Lagina</i>	10.028	6.327	-
3. Barrutia	4,2	4,3	0,86
<i>Lagina</i>	5.306	5.422	-
4. Barrutia	4,8	5,4	1,18
<i>Lagina</i>	4.337	3.572	-
5. Barrutia	2,2	2,8	0,85
<i>Lagina</i>	3.923	3.748	-
Iturria. Soziolinguistika Klusterra.			

7 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA

7.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA (2021)

7. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA SEXUAREN ARABERA. GASTEIZ, 2021 (%)




%	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	4,4	3,8
Gaztelaniaz	91,7	89,6
Frantsesez	0,1	0,1
Beste hizkuntzetan	3,7	6,5
GUZTIRA	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	<i>13.844</i>	<i>11.384</i>

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.2 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (2006 – 2021)


8. Grafikoa eta Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. GASTEIZ 2006-2021 (%)



Sexua	2006	2011	2016	2021
Emakumezkoak	4,2	3,4	3,9	4,4
<i>Lagina</i>	12.874	15.175	16.486	13.844
Gizonezkoak	3,7	2,8	3,5	3,8
<i>Lagina</i>	9.600	12.967	13.775	11.384
Iturria. Soziolinguistika Klusterra.				

7.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA (2021)

9. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA ADINAREN ARABERA. GASTEIZ, 2021 (%)




%	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Heldu gazteak (25-44 urte)	Heldu nagusiak (45-64 urte)	Adinekoak (>64 urte)
Euskaraz	7,3	6,0	5,2	2,5	0,9
Gaztelaniaz	87,3	90,7	86,3	91,3	98,3
Frantsesez	0,0	0,1	0,3	0,1	0,2
Beste hizkuntzetan	5,4	3,2	8,2	6,1	0,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100
<i>Lagina</i>	4.457	3.890	4.939	7.442	4.500

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

7.4 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA (1993 – 2021)

10. Grafikoa eta Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. GASTEIZ 1993-2021 (%)




Adin-taldea	1993	1997	2001	2006	2011	2016	2021
Haurrak (2-14 urte)	4,2	4,7	3,5	5,8	5,3	5,9	7,3
<i>Lagina</i>	4.544	4.304	4.041	4.326	5.289	5.975	4.457
Gazteak (15-24 urte)	2,0	3,4	3,4	6,3	5,2	5,3	6,0
<i>Lagina</i>	6.327	5.052	2.622	2.858	3.427	3.353	3.890
Helduak (25-64 urte)	2,6	2,4	2,9	3,8	2,6	3,5	3,6
<i>Lagina</i>	9.884	10.055	8.438	11.734	14.324	15.669	12.381
Adinekoak (>64 urte)	0,9	0,9	0,3	0,7	0,8	0,9	0,9
<i>Lagina</i>	2.984	2.362	1.965	3.556	5.102	5.264	4.500
Iturria. Soziolinguistika Klusterra.							

8 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS- TALDEAREN OSAERAREN ARABERA

8.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADIN-TALDE BEREKOAK ELKARTZEAN (2021)

11. Grafikoa eta Taula. ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE ERABILERA.
GASTEIZ, 2021 (%)




%	Haurren artean	Gazteen artean	Heldu gazteen artean	Heldu nagusien artean	Adinekoen artean
Euskaraz	3,6	6,3	3,0	2,0	0,6
Gaztelaniaz	94,7	90,7	86,7	90,9	98,8
Frantsesez	0,0	0,1	0,4	0,2	0,2
Beste hizkuntzetan	1,6	2,9	9,9	6,9	0,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100
<i>Lagina</i>	1.408	3.333	2.907	4.445	3.160

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

8.2 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADIN-TALDE BEREKOAK ELKARTZEAN (2006 – 2021)


12. Grafikoa eta Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEAN. GASTEIZ 2006-2021 (%)



Adin-taldea	2006	2011	2016	2021
Haurren artean	0,8	1,7	0,9	3,6
<i>Lagina</i>	1.249	1.365	1.757	1.408
Gazteen artean	6,3	5,5	5,8	6,3
<i>Lagina</i>	2.394	2.828	2.722	3.333
Helduen artean	2,4	1,3	2,4	2,3
<i>Lagina</i>	7.207	8.916	9.958	8.054
Adinekoen artean	0,4	0,6	0,5	0,6
<i>Lagina</i>	2.481	3.541	3.615	3.160
Iturria. Soziolinguistika Klusterra.				

8.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA (2021)

13. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. GASTEIZ, 2021 (%)




%	Haurren artean	Nagusien artean	Haurren eta nagusien artean
Euskaraz	3,6	2,7	7,9
Gaztelaniaz	94,7	92,4	85,8
Frantsesez	0,0	0,2	0,0
Beste hizkuntzetan	1,6	4,7	6,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	1.408	17.126	6.694

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

8.4 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA (2006 – 2021)


14. Grafikoa eta Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. GASTEIZ 2006-2021 (%)



Haurren Presentzia	2006	2011	2016	2021
Haurren artean	0,8	1,7	0,9	3,6
<i>Lagina</i>	1.259	1.365	1.757	1.408
Nagusien artean	2,7	1,9	2,4	2,7
<i>Lagina</i>	13.868	18.054	19.269	17.126
Haurrak eta nagusiak nahastuta	6,7	5,9	7,1	7,9
<i>Lagina</i>	7.505	8.723	9.235	6.694
Iturria. Soziolinguistika Klusterra.				

8.5 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURRA ALA NAGUSIA HITZ EGITEN ARI DEN (2021)

15. Grafikoa eta Taula. HAUR-NAGUSI TALDEETAKO KALE ERABILERA, HAURRA ALA NAGUSIA HITZ EGITEN. GASTEIZ, 2021 (%)



%	Haurra hizlari	Nagusia hizlari
Euskaraz	11,5	5,7
Gaztelaniaz	84,9	86,3
Frantsesez	0,0	0,1
Beste hizkuntzetan	3,6	7,9
GUZTIRA	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	2.551	4.143

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

9 ONDORIOAK

Gasteizen 2021ean eginiko *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak* erakutsi du hiriburuko kaleetan 100 lagunetatik 4 ari zela euskarazko elkarrizketetan (% 4,1). Gehiengoak gaztelaniazko elkarrizketetan parte hartu du (% 90,8), eta frantsesezko elkarrizketetako solaskideek % 0,1 eta beste hizkuntzetan ari zirenek % 5,0 osatu dute.

- Azken hamar urtean, gora egin du euskararen kale-erabilerak Gasteizen, 2006ko % 4,0a berreskuratuz. Oro har, goranzko joera du euskararen kale-erabilerak 1993tik Gasteizen.
- Euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen presentzia nabarmentzekoa da Gasteizen. Inoiz lortu den zifrarik altuena lortu da 2021ean. Hiriguneez ezaugarri bereziak dituzte jatorri atzeritarreko biztanleriaren bizileku eta turismo-gune bezala.
- Barrutiei dagokienean, euskara gehien 1. eta 4. Barrutietan entzuten da (% 5,3 bietan). Jarraian, 3. Barrutia kokatzen da % 4,3ko euskararen kale-erabilerarekin. Azkenik, 2. eta 5. Barrutiko kaleetan entzuten da gutxien euskara (% 2,9 eta % 2,8 hurrenez hurren).
- Azpimarratzekoak dirudite 1. eta, bereziki, 3. Barrutietan euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen kale-erabilerak, euskararena gainditzen duelako (bikoitza da datu hau 3. Barrutiaren kasuan).
- Barruti gehienetan zertxobait gora egin du euskararen kale-erabilerak, igoera hori akats-tartearen barruan kokatu bada ere. 2. Barrutian gertatu da gorakadarik nabarmenena.
- Emakumezkoek gizonezkoek baino euskara zertxobait gehiago darabilte Gasteizko kaleetan. Horixe da Euskal Herriko joera orokorra ere.
- Gasteizen, joera orokorrarekin bat eginez, haurrek hitz egiten dute gehien euskaraz eta gutxien adinekoek. Gazteek haurrek baino erabilera pixka bat baxuagoa daukate, gazteen mundua gehiago hurbiltzen baita helduenera, eta helduen mundu hori nagusiki erdalduna da. Helduen mundurako jauzia egitean, euskara erabiltzeko aukerak ireki behar zaizkie gazteei (lan-munduan, kultur eta kirol eskaintzan, hedabideetan eta ingurune digitalean...). Eskola bitartez euskaldundu diren haurrek eta gazteek euskara erabiltzeko gune erosoak aurkitu ezean, ez dute erabiltzeko aukerarik izango. Pozgarria da, zentzu horretan, heldu gazteen erabilera gazteenetik hurbil kokatzea. Heldu nagusien euskararen kale-erabilera, berriz, gehiago hurbiltzen da adinekoenera. Haurren, gazteen eta helduen euskararen kale-erabilerak, gainera, goranzko joera du Gasteizen 2011tik.
- Adin berekoen arteko elkarrizketetan azaleratu da, bestalde, orain artean agerian ez zegoen informazio interesgarria. Izan ere, harreman horizontaletan, baxuagoa da euskararen kale-erabilera Euskal Herrian eta Gasteizen, gazteetan izan ezik. Gazteak beren artean daudenean euskararen erabilera-maila berari eusten diote. Nabarmentzekoa da, halaber, gazteen arteko elkarrizketetan entzuten dela euskara gehien Gasteizen, gainerako adin-taldeak beren artean elkartzen direnean baino. Hizkuntza-

sozializazioaren ikuspegitik, garrantzizkoa dirudi berdinen arteko harreman horietan euskarak presentzia izatea. Hurbiletik jarraitu behar litzateke, zalantzarik gabe, fenomeno horren bilakaera, eta bada emaitza positiborik Gasteizen: haurren artean egiten den euskararen erabilera-mailak joera gorakorra du 2006. urtetik eta gazteen nahiz helduen artekoak 2011tik. Hizkuntza biziberritzeari begira, eutsi beharreko joera da hori.

- Fenomeno horrekin lotzen da haurren presentziak euskararen erabileran duen eragina. Euskal Herriko kaleetan pertsona nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean, eurak bakarrik daudenean baino. Horixe ikusten da Gasteizen ere. Badirudi pertsona nagusiek euren harreman horizontaletan gaztelaniarako joera sendoagoa dutela eta hurrekin daudenean errazago baztertzen dutela joera hori: nagusien arteko taldeetan entzuten da gutxien euskaraz, eta hurrekin daudenean, aldiz, nabarmen igotzen da euskararen erabilera. Guraso izateak askotan dakar euskararekiko kontzientzia eta praktika indartzea. Hurrek beren artean ere nagusiek daudenean baino gutxiago erabiltzen dute euskara. Argi geratzen da, beraz, adin desberdinetako pertsonak elkarteak euskararen aldeko hautua indartzen duela. Indarrean dago haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala.

Aurrera begira, garrantzitsua da haurren eta gazteen joerei erreparatzea. Norabide horretan, Gasteizen, bada itxaropenerako daturik. Dena den, gogoan izan behar da badirela egun erronka soziolinguistiko handiak, belaunaldi berri horiek hizkuntzari eutsi diezaioten. Esaterako, kontuan hartzekoa da egungo euskal hiztunen profil linguistikoa desberdina dela garai bateko euskaldunen artean ohikoen zen profiletik. Gaur egun, haur eta gazte gehienak eskolatik euskaldunduak dira, eta erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz aritzeko. Horrek, askotan, zailtasunak sortzen dizkie euskara erabiltzeko.

Halaber, egungo gizartea ez da duela hogeita hamar urteko berbera. Globalizazioaren eraginez, sakon eta bizkor ari da eraldatzen gizartea. Lurralde arteko mugikortasuna erraztu eta handitu da, eta horrek kultur arteko harremanak ugaritzea eta garatzea ekarri du. Hala, hizkuntza hegemonikoak gero eta hegemonikoago bihurtzen ari dira. Azken hamarkadatan eta urteetan asko aldatu da hiria (sozialki, ekonomikoki, kulturalki...). Horrek guztiak erronka berriak sorrarazi dizkio euskararen biziberritze-prozesuari.

Kanpo-eraginak tarteko direla ere, zaindu beharrekoak dira haurren eta gazteen hizkuntza-erraztasuna, euskaraz modu lasaian aritzeko aukerak eta euskarazko sozializazioa. Herritar guztiek dute zeregina eginkizun horretan. Euskararen biziberritzearena, ilusioz, erabakimenez, enpatiaz eta inteligentziaz gauzatu beharreko prozesu berritzaile eta eraldatzailea da, bizikidetzaz zainduz eta gizarte hobe bat eraikitzeko bidean.

10 DATU NAGUSIEN LABURPENA

Gasteiz, 2021 Hizkuntzen erabileraren kale neurketa Datu nagusien laburpena

Datu orokorrak	Euskaraz	% 4,1
	Gaztelaniaz	% 90,8
	Beste hizkuntzatan	% 5,1
	Euskararen erabileraren bilakaera (2016-2021)	+0,4
	Euskararen erabileraren bilakaera (1997-2021)	+1,6
ibilbideak	1. Barrutia	% 5,3
	2. Barrutia	% 2,9
	3. Barrutia	% 4,3
	4. Barrutia	% 5,3
	5. Barrutia	% 2,8
Sexua	Emakumezkoek	% 4,4
	Gizonezkoek	% 3,8
Adina	Hurrek	% 7,3
	Gazteek	% 6,0
	Helduek	% 3,6
	Heldu-gazteek	% 5,2
	Heldu-nagusiek	% 2,5
	Adinekoek	% 0,9
	Haurren artean	% 3,6
	Gazteen artean	% 6,3
	Helduen artean	% 2,3
	Heldu-gazteen artean	% 3,0
	Heldu-nagusien artean	% 2,0
Adinekoen artean	% 0,6	
Haurren presentzia	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean	% 3,6
	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean	% 2,7
	Hurrek eta nagusiek osatutako taldeetan	% 7,9
	Hurrek hitz egiten dutenean	% 11,5
	Nagusiek hitz egiten dutenean	% 5,7

BIBLIOGRAFIA

- Aierdi, Xabier, Belen Uranga, eta Maialen Iñarra. 2021. «Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza -aniztasunaren mapa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren araberrako hurbilketa». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 119: 11–38.
- Aizpurua Espin, Jon. 2018. «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 29–45.
- Altuna, Olatz. 2002. «Erabileraren IV Kale Neurketa. Eraitzen azterketa». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, zenb. 43: 37–48.
- . 2018. «Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran?» *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, zenb. 106: 11–27.
- Altuna, Olatz, eta Asier Basurto. 2013. *Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Altuna Zumeta, Olatz, Maialen Iñarra Arregi, eta Asier Basurto Arruti. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Alvarez Enparantza, Txillardegi, J. L. 2001. *Hacia una Sociolingüística Matemática*. SEI.
- Amorrortu, Estibaliz, Jone Goirigolzarri, eta Ane Ortega. 2021. «Ekintza-ikerketaren partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 11–26.
- Augé, Marc. 2004. *Los «no lugares»: espacios del anonimato: una antropología de la modernidad*. Barcelona: Gedisa.
- Bromham, Lindell, Russell Dinnage, Hedvig Skirgård, Andrew Ritchie, Marcel Cardillo, Felicity Meakins, Simon Greenhill, eta Xia Hua. 2022. «Global Predictors of Language Endangerment and the Future of Linguistic Diversity». *Nature Ecology & Evolution* 6 (2): 163–73. <https://doi.org/10.1038/s41559-021-01604-y>.
- Calvet, Louis-Jean. 2017. *Les langues, quel avenir? les effets linguistiques de la mondialisation*. Biblis 172. Paris: CNRS éditions.
- Crystal, David. 2003. *English as a Global Language*. 2. arg. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511486999>.
- De la Calle Vaquero, Manuel. 2019. «Turistificación de centros urbanos: clarificando el debate». *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, zenb. 83 (abenduak). <https://doi.org/10.21138/bage.2829>.
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. 2020. *VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Nafarroako Gobernua (Euskarabidea), eta Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque. 2019. *VI. Inkesta Soziolinguistikoa (2016)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/eas_mas_noticias/fr_def/adjuntos/VI_Inkesta-soziolinguistikoa.pdf.
- Feixa, Carles. 2005. «La habitación de los adolescentes». *Papeles del CEIC*, zenb. 16. <https://ojs.ehu.es/index.php/papelesCEIC/article/download/12125/11047>.

- Gaindegia. 2021. «20 Adierazle galeria nagusi. Euskal Herria». https://gaindegia.eus/sites/default/files/AGN-euskal-herria-2021_8.pdf.
- Giles, H, R.Y. Bourhis, Taylor, D.M., eta Relations». 1977. «"Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations"». *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348).
- Hernández García, Jone M. 2010. «Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur». *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak = Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque* 55 (2): 579-607.
- Hernández García, Jone M., eta Ainara Santamaria Barinagarrementeria. 2022. «Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak». *Fontes Linguae Vasconum*, zenb. 132 (urtarrilak): 349-74. <https://doi.org/10.35462/flv132.4>.
- Hiria Kolektiboa. 2010. «Hiri analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza». *Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*. https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=047617&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf.
- Iriberry, Nagore, eta José Ramón Uriarte. 2012. «Gutxiengoaren hizkuntza eta elebitasunaren orekaren egonkortasuna». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 84: 185-206.
- Isasi, X., eta A. Iriarte. 1998. «"Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", BAT Soziolinguistika aldizkaria 28, 51-80 orr». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 28: 51-80.
- Larrañaga, Iñaki. 1986. «Euskararen erabilpen erreala Gipuzkoan: leku publikoetan, udal erakundeetan, gizarteko zerbitzuetan». In *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, -(e)k argitaratua J. Ruiz Olabuenaga eta J.A. Ozamiz. Donostia: Tartalo argitaletxea.
- Lo Bianco, Joseph. 2014. «Domesticating the Foreign: Globalization's Effects on the Place/s of Languages: Domesticating the Foreign: Globalization's Effects». *The Modern Language Journal* 98 (1): 312-25. <https://doi.org/10.1111/j.1540-4781.2014.12063.x>.
- Martinez de Luna, Iñaki. 2015. «The Basque language: From an unknown past to a bright future». *EJM Europäisches Journal für Minderheitenfragen* 3-4: 225-54.
- Moseley, Christopher. 2010. *Atlas of the World's Languages in Danger*. 3. arg. Paris: Unesco Publishing.
- Ramallo, Fernando. 2020. «Neofalantismo y el sujeto neohablante». In *Claves para entender el multilingüismo contemporáneo*, -(e)k argitaratua Luisa Martín Rojo eta Joan Pujolar, UOC y Universidad de Zaragoza, 229-65. Zaragoza.
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio, eta Cristina Blanco. 1994. *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Salminen, Tamani. 2020. «Europe and the Caucasus». In *Atlas of the World's Languages in Danger*, Christopher Moseley. Parik: UNESCO Publishing.
- Sorolla Vidal, Natxo, Olatz Altuna Zumeta, eta Imanol Larrea Mendizabal. 2019. *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak*. Soziolinguistika Klusterra.
- Telleria, K. 2014. «Lurralde bat; hainbat hizkuntza, hainbat modu». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 90: 25-40.

- Tonucci, Francesco. 2013. *Haurren hiria: hiria pentsatzeko beste modu bat*. Arrasate, Guipuzkoa: Txatxilipurdi.
- Vila i Moreno, F. Xavier. 2021. «Hizkuntza gutxituak: ezagutzaren eta erabilera sustatzearen arteko lotura». *Administrazioan euskaraz*, zenb. 111: 26–27.
- Yurramendi, Y., eta O. Altuna. 2009. «Zuzeneko behaketaz hizkuntza erabilera neurtzeko metodologiaren eredu matematikoa». Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/zuzeneko-behaketaz-hizkuntza-erabilera-neurtzeko-metodologiaren-eredu-matematikoa/>.
- Yurramendi, Y., O. Altuna, X. Isasi, eta A. Basurto. 2013. «Ahozko hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiaren garapena». Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/ahozko-hizkuntza-erabilera-behaketa-bidez-neurtzeko-metodologiaren-garapena/>.
- Zarraga Azumendi, Arkaitz. 2010. «Soziolinguistikari sarrera». In *Soziolinguistika Eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra; Eusko Jaurlarita, Kultura Saila.

ERANSKINAK

1. IBILBIDEAK ETA PLANOAK

Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Abetxuko*

Kalez kale:

Cristo, Azeduya, Iturrizabala, Ancora, Charraquea, Araca, Uribegela kalea.

Planoa:




Udalerria:	GASTEIZ
Ibilbidea:	Adurtza, Aretxabaleta, San Kristobal, Unibertsitatea

Kalez kale:

Unibertsitatearen pasealekua (irakasle eskolaren parean), Izarduy komandantearen kalea, Nieves Cano kalea, Domingo Martinez de Aragon kalea, Herminio Manidabeitia kalea, Izarduy komandantearen kalea ,Iturritxu kaleraino (merkataritza gunea), Iturritxu kalea, Campo de los Palacios kalea, Alberto Schommer kalea, Iratxo pasabideraino

Planoa:




Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Alde Zaharra 2*

Kalez kale:

Diputazio, Errementari, Zapatari, Hedegile.

Planoa:




Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Aranbide*

Kalez kale:

Frantzia, Askatasun, Los Herran, Esperantza, Arana, Legutioko atea

Planoa:



Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Ariznabarra*

Kalez kale:

Ariznabarra, Kexanako Gaztelua, Teodoro Gonzalez de Zarate,
Lantarongo Gaztelua, Ozioko Gaztelua.

Planoa:




Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *El Pilar*

Kalez kale:

Basoa, D. Beltran Otorola, Peru, Costa Rica, Salvador, Venezuela,
Paraguay, Konstituzio plaza, Basoa.

Planoa:



Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Lakua 1/8 A1*

Kalez kale:

Antonio Machado, Wellington Dukea, Baiona, Iruñea, Orreaga,
Lizarra, Machado, Urbasa, Iratxe

Planoa:



Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Lakua 1/8 A2*

Kalez kale:

Blas de Otero, Girona, Ori, Donostia, Baiona, Getaria, Andia, Wellington.

Planoa:



Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Mendizorrotza*

Kalez kale:

Corazonistas ikastetxean hasita Fray Francisco de Vitoria ibilbidea, Cervantes ibilbidea, Estadioko ateraino, itzuli Cervantes ibilbidetik, Mendizorrotzeko futbol zelaiaren parean aurrera egin (Amadeo garcia de Salazar plaza), Lasarteko ateraino, Elvira Zulueta Fray Francisco ibilbideraino.

Planoa:




Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Salburua*

Kalez kale:

Elorriagako atea (Eroskiren parean), Salburuko bulebarra, Bratislava hiribidea, Bucarest kaletik gizarteraino, buelta, Bucarest kaletik Ekialdeko parkera, parkea gurutzatu eta Pra kaletik Elorriaga kaleraino.

Planoa:



Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Txagorritxu 1*

Kalez kale:

Serafin Ajuria, Zumarraga Dohatsua, Gasteiz hiribidea, Adriano VI, Avendaño, Diaz de Olano margolaria, Buztinzuri

Planoa:



Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Errota*

Kalez kale:

Tenerias, Eulogio Serdan, Domingo Beltran, Badaia, Aldabe,
Coronacion, Julian Apraiz.

Planoa:




Udalerria: *GASTEIZ*

Ibilbidea: *Sansomendi*

Kalez kale:

Valentin Foronda zidorra (gizarte etxea), Ibaibariaga koronela, Antonio Machadotik Wellingtongo Dukera, gurutzatu Blas de Otero kalea, segi Wellingtongo Duketik, Baiona kalea, Hondarribia kalea, eskumatara Zumaia plazara, Donsotai kaletik Cataluña plazara, Bartzelona kalea, Orio kalea eta gurutzatu Ibaiondoko gizarte etxera.

Planoa:




Udalerria: GASTEIZ

Ibilbidea: Zabalgana

Kalez kale:

Ghandi kalearen hasieran Leclerc, Zabalgana hiribidea, La Unesco ibilbidea, Sofia erreginaren ibilbidea, oinezkoen esporrutik Ilustrazioaren hiribidera, Giza Eskubideen hiribidea, Bastida kalerinoko bidegurutzera, Bastida parkea, Gasteizko Zuazoko ateraiano.

Planoa:



2. NEURRALDIAK ETA BARRUTIAK

7. Taula. NEURRALDIAK, BARRUTIEN ARABERA. GASTEIZ, 2021

BARRUTIA	IBILBIDEA	EGUNA		ORDUTEGIA		ORDU KOPURUAK	
1. Barrutia	Alde Zaharra 1	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	Alde Zaharra 2	13/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
		16/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
	Errota	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	El Pilar	13/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
		16/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
	Zentroaldea	25/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		29/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
		23/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		27/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
2. Barrutia	Ariznabarra	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
		23/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		27/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	Gazalbide	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	Irubide	13/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		16/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	Mendizorrotza	25/09/2021	Larunbata	18:00-20:00		2	
		29/09/2021	Asteazkena	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		23/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		27/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	Txagorritxu 1	18/09/2021	Larunbata	18:00-20:00		2	
		22/09/2021	Asteazkena	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
	Txagorritxu 2	25/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		29/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	San Martin	13/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		16/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
		23/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		27/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	Zabalgana	18/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4	
		22/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2	
	3. Barrutia	Arana	18/09/2021	Larunbata	18:00-20:00		2
			22/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
23/10/2021			Larunbata	18:00-20:00	11:00-13:00	4	
27/10/2021			Asteazkena	18:00-20:00		2	

	Aranbide	13/10/2021	Larunbata	18:00-20:00		2
		16/10/2021	Asteazkena	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		27/10/2021	Larunbata	18:00-20:00		2
		30/10/2021	Asteazkena	11:00-13:00	18:00-20:00	4
	Aranbizkarra	02/10/2021	Larunbata	18:00-20:00	11:00-13:00	4
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Salburua	25/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		29/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Zaramaga 1	18/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		22/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Zaramaga 2	25/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		29/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
4.Barrutia	Adurtza, Aretxabaleta, San Kristobal, Unibertsitatea	18/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		22/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Judimendi	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Desamparados	13/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
		16/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
5.Barrutia	Abetxuko	25/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		29/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Arriaga	25/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		29/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Lakua 8/A1	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Lakua 8/A2	18/09/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		22/09/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
	Sansomendi	02/10/2021	Larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00	4
		06/10/2021	Asteazkena	18:00-20:00		2
NEURKETAN IGAROTAKO ORDUAK: 198 orduko neurketa						

Iturria: Soziolinguistika Klusterra

3. SEXUEN ARABERAKO HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, BARRUTIEN ARABERA

8. Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA, BARRUTIETAN. GASTEIZ, 2016-2021

Neurketa-urtea	Barrutia	Emakumezkoak	Emakumezkoen erabilera	Gizonezkoak	Gizonezkoen erabilera
2016	1.Barrutia	3.684	% 6,0	2.983	% 5,8
2021	1.Barrutia	3.606	% 5,5	2.553	% 5,1
2016	2.Barrutia	5.419	% 2,3	4.609	% 2,0
2021	2.Barrutia	3.478	% 3,1	2.849	% 2,7
2016	3.Barrutia	2.792	% 4,5	2.514	% 3,7
2021	3.Barrutia	2.831	% 4,2	2.591	% 4,5
2016	4.Barrutia	2.499	% 4,9	1.838	% 4,7
2021	4.Barrutia	1.959	% 6,4	1.613	% 4,1
2016	5.Barrutia	2.092	% 2,4	1.831	% 2,1
2021	5.Barrutia	1.970	% 3,3	1.778	% 2,2

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

4. ADINAREN ARABERAKO HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, BARRUTIEN ARABERA

9. Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA, BARRUTIETAN. GASTEIZ, 2016-2021

Neurketa-urtea	Barrutia	Haurrak	Haurren erabilera	Gazteak	Gazteen erabilera	Helduak	Helduen erabilera	Adinekoak	Adinekoen erabilera
2016	1.Barrutia	1.262	% 9,4	767	% 8,5	3.677	% 5,5	961	% 0,9
2021	1.Barrutia	784	% 10,2	1.103	% 8,8	3.411	% 4,1	861	% 1,3
2016	2.Barrutia	1.836	% 4,5	972	% 0,7	5.324	% 2,0	1.896	% 1,0
2021	2.Barrutia	942	% 7,0	1.053	% 2,8	2.947	% 2,9	1.385	% 0,4
2016	3.Barrutia	1.148	% 6,3	601	% 6,8	2.402	% 3,9	1.155	% 1,3
2021	3.Barrutia	1.158	% 7,3	644	% 4,3	2.540	% 4,0	1.080	% 1,9
2016	4.Barrutia	662	% 6,8	624	% 9,9	2.348	% 4,2	703	% 0,4
2021	4.Barrutia	593	% 8,3	530	% 13,4	1.636	% 4,0	813	% 0,7
2016	5.Barrutia	1.067	% 3,2	389	% 0,8	1.918	% 2,6	549	% 0,2
2021	5.Barrutia	980	% 4,6	560	% 1,2	1.847	% 2,8	361	% 0,0

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

5. HAUREN PRESENTZIAREN ARABERAKO HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, BARRUTIEN ARABERA

**10. Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, HAUREN
PRESENTZIAREN ARABERA, BARRUTIETAN. GASTEIZ, 2016-2021**

Neurketa- urtea	Barrutia	Haurren arteko elkarrizketetan behatuak	Haurren arteko erabilera	Haurrik gabeko elkarrizketetan behatuak	Nagusien arteko erabilera	Haurren eta nagusien arteko elkarrizketetan behatuak	Haurren eta nagusien arteko erabilera
2016	1.Barrutia	406	% 2,0	4.445	% 3,8	1.816	% 12,0
2021	1.Barrutia	146	% 10,3	4.607	% 3,9	1.406	% 9,6
2016	2.Barrutia	420	% 1,0	6.510	% 0,9	3.098	% 4,9
2021	2.Barrutia	250	% 4,4	4.553	% 1,6	1.524	% 6,7
2016	3.Barrutia	323	% 0,3	3.124	% 2,5	1.859	% 7,6
2021	3.Barrutia	371	% 3,8	3.329	% 2,4	1.722	% 8,1
2016	4.Barrutia	211	% 0,0	3.148	% 3,9	978	% 8,9
2021	4.Barrutia	172	% 5,2	2.448	% 4,4	952	% 7,8
2016	5.Barrutia	397	% 0,8	2.042	% 1,3	1.484	% 3,9
2021	5.Barrutia	469	% 0,4	2.189	% 1,1	1.090	% 7,2

Iturria. Soziolinguistika Klusterra.